


**IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRAK**  
Lehen Hezkuntzan eta DBHn



**2012ko Ikerketa**



**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETEN SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**ISEI·IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**ISEI.IVEI** argitaratua

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea  
Asturias, 9 -3.a  
48015 Bilba  
Tel. 94 476 06 04  
[Info@isei-ivei.net](mailto:Info@isei-ivei.net)  
[www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**2012ko urria**

**Txostenaren egileak:** Amaia Arregi Martínez eta Paz Martínez Fernández de Larrinoa, Eduardo Ubieta Muñuzuriren eta José Luis Tranche Garcíaeren aholkularitza teknikoarekin; ISEI-IVEIko zuzendaritza taldeak gainbegiratua eta onetsia, Francisco Lunaren zuzendaritzapean.

Proben garapenean honako pertsona hauek hartu dute parte: Paz Martínez, koordinatzailea; Mikel Urkijo, aplikazio informatikoaren garapena eta kontrola; proben garapenaren kontrola: Araceli de Francisco, Paz Martínez, Yolanda Méndez, José Ramón Ugarriza.

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b> .....	5
<b>2. Oinarri teorikoa</b> .....	6
<b>3. Ikerketaren helburuak</b> .....	9
<b>4. Ikerketaren ezaugarriak</b>	
• Lagina (probetakoa eta haztatua).....	10
• Metodologia .....	11
<b>5. Tratu txarren bilakaera, ezaugarriak eta trataera</b> .....	15
<b>A. Tratu txarren indizea eta tipologia</b> .....	16
1. Tratu txarrik jasaten ez duten ikasleen ehunekoak.....	16
2. Tratu txarren indize orokorra .....	16
3. Adinaren, irakasmilaren eta tratu txarren arteko erlazioa.....	18
4. Ehunekoak tratu txar moten arabera.....	19
5. Tratu txarren kopurua.....	21
6. Ikastetxera joateko beldurra eta arrazoiak.....	23
7. Tratu txarretako biktimaren profila .....	24
8. Cyberbullyingaren analisisa.....	27
9. Sexu-orientazioarengatik tratu txarren analisisa.....	29
<b>B. Tratu txarren nondik norakoak</b>	
10. Tratu txarrak non gertatzen diren.....	31
11. Tratu txarrak nork ematen dituen.....	32
12. Biktinek norengana jotzen duten .....	34
13. Ikasleen jarrera tratu txarren aurrean.....	36
14. Irakasmila errepikatzea eta tratu txarrak .....	38
15. Familiaren jatorria eta tratu txarrak .....	39
16. Familiaren ISEK maila eta tratu txarrak .....	41
<b>C. Ikastetxearen esku hartzea</b>	
17. Prebentzio ekintzen bilakaera .....	42
18. Zigor motak.....	45
19. Gatazken maiztasunaren joera .....	46
20. Gatazka egoeren aurrean estrategiak.....	47
<b>ERANSKINA</b> .....	50



## I. SARRERA

Azken hamarraldiotan sentiberatze eta kontzientzia hartze gero eta handiagoa gertatu da behar bada eskola bera bezain zaharra eta zabaldua den arazo baten garrantziaz: ikaskideen arteko tratu txarrak eskolaren ingurunean. Arazoari buruzko kezka eta interes hori denbora horretan handitzearen arrazoiak bi motakoak izan dira: alde batetik, arazoa ikertzeko eta aztertze prozesuak, eta bestetik, eskola ingurunean horrelako jokaerak prebenitzeko eta tratatzeko berariazko hezkuntza-programak abian jartzea eta bultzatzea, horretarako hezkuntza-neurriak eta tresnak bultzatu eta garatu direlarik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aspalditik erakutsi du arazo hori tratatzeko eta konpontzeko bere kezka eta interesa, eta ikastetxeetan aztertzea eta esku-hartzea helburu estrategiko bihurtu du. Kezka horren ondorioz, alde batetik, fenomenoaren egoerari eta bilakaerari buruzko aldi behingo datuak jasotzeko interesa sortu da –ikerlan hau horren erakusgarri–, eta, bestetik, askotariko hezkuntza-neurriak eta proposamenak bultzatu dira, hala nola irakasleen prestakuntza eta aholkatze programak, ikastetxeetan bizikidetza hobetzeko barne-arduradunak izendatzea, ikastetxeetako barne-araudiak berritzea eta eguneratzea eta bizikidetza-arauak komunitate osoari ezagutaraztea, bizikidetza-behatokiak bultzatzea edo cyberbullyinga identifikatzeko eta tratatzeko protokolo bat sortzea.

Gaur egun eskolako indarkeria, edo ikaskideen arteko indarkeria, indarkeria adierazteko beste modu bat dela pentsatzen da. Lehen esparru pribatuko arazotzat hartzen bazen ere, gaur egun gizarte osoari dagokion arazoa da. Kideen arteko indarkeria biktimaren eskubiden kontrako eta, zehazki, biktimaren osotasun fisiko eta psikikoaren kontrako erasotzat hartzen da. Ez da, beraz, arazo pribatua, hezkuntzari dagokion arazo publikoa baizik.

Ikaskideen arteko tratu txarrak ez dira inolaz ere gai hutsaltzat hartu behar, ez baitira beti izaten "haurren arteko liskarrak", batzuetan garrantzia kentzearen horrela aurkeztu nahi diren arren. Aitzitik, ikaskideen arteko tratu txarra harreman desorekatu bat ezartzean datza: harreman horretan ikaskideetako batek ezin ditu bere eskubideak defendatu, eta beraz gutxiagotasun-maila batean geratzen da. Maila bereko pertsonen arteko harreman horizontal batean pertsonak akordioetara heltzen, elkarrekintzarako arauak finkatzen eta abar ikasten dute, baina harreman desorekatu horrek hezkuntza-etekin guztiak hausten ditu. Gainera harreman desorekatu eta gatazkatsu hori testuinguru jakin batean –eskolaren ingurunean– sortzen da, eta ikasleak ezin du hortik irten, bertan bere eguneroko denborarik gehiena ematen duelako eta bertan ikaskideekin bizi, ikasi eta hezi behar duelako.

Beraz, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztien erantzukizuna da eskolaren ingurunean sortzen diren gatazken dinamikak antzematea, zuzentzea eta horretarako estrategiak ezagutzea. Baina pertsona helduak ez dira prestatu eta trebatu behar diren bakarrak, era askotako tratu txarren lekukoak diren ikaskideen multzo handiak ere jokaera horien aurrean nola lagundu jakin beharko bailuke.

Isiltasunaren legeak, gaur egungo gizartearen ere eguneroko ogia, ikasleengan du bere isla eta eskola-jazarpenaren gaizkiderik handienetako bat da. Kanpotik esku hartzeko aukerak murrizten ditu, eta tratu txarren jasotzailea (ikaslea kasu honetan) isolamendura baztertzen du, isolamendu horretan biktima izateko aukerak areagotu egiten direlarik. Hartara, tratu txarrak salatzea ezin da lotu salatari-malataria edo kontakatilua izatearekin, biktimari ukatzen ari zaizkion giza-eskubideak babesten saiatzearekin baizik.

Arazoari modu orokorrean eta hezigarrian aurre egin behar zaio, eskolaren ingurunea osatzen duten elementu guztientzako kaltegarria eta galgarria delako. Hezkuntza mundua

osatzen duen inork ez du etekinik ateratzen bizikidetzeta eta norberaren garapena sustatzeko balio ez duen eredu batetik.

Guztia kontrolpean izan arren, indarkeria kasuak beti gertatuko dira, eta, beraz, ikastetxeek gertaera desatsegin horiez baliatu behar dute ikasleekin bizikidetzeta handitzeko teknikak eta gatazkak bideratzeko teknika egokiak abian jartzeko, gero bizitzeta osoan zehar beste egoera batzuetan aplikatu ahal izango baitituzte.

Laburbilduz, arazoa ez da tratatu behar jokaera isolatuen segida balitz bezala, bizikidetzeta-gatazken adierazle bezala baizik. Gatazka horiek ikasleen garapen pertsonalari eta sozialari eragiten diote, eta baita ikasketetako errendimenduari, nortasunaren eraketari eta ondorengo gizarteratzeari ere.

Ikerketan aurkezten diren datuek, era horretako beste zenbait ikerlanetan eta inkestetan oinarritutako edozein lanetan gertatzen den bezala, adin jakin batzuetako ikasleen iritziak eta pertzepzioak biltzen dituzte, ikastetxean eta beren ingurune hurbilean gertatzen diren ikaskideen arteko tratua txarrei buruz. Ikasle batek tratua txarren biktima dela esaten duenean, aztertutako moten arteko edozein tratua txar izanik ere, ez da erraz jakiten ikerketa honetan tratua txarrei ematen zaien definizioari dagokion errealitatea den ala ikaslearen sentsazioa edo interpretazioa baino ez ote den. Edozein modutan ere, ikerketaren edizio honetako datuak iraganeko garaietako datuekin bat baldin badatoz, txosten honetan eskaintzen den egoeraren argazkiak gure erkidegoko ikastetxeetako errealitatea islatzen duela ondorioztatu daiteke.

## 2. OINARRI TEORIKOA

Bullying izenaz ezagunak diren ikaskideen arteko tratua txarrak ikerketa ugarian aztertu dira hainbat herrialdetan, Dan Olweus<sup>1</sup> norvegiarra hirurogeita hamarreko hamarraldian arazo horren inguruko ikerketak egiten hasi zenetik.

Ikaskideen arteko tratua txarren inguruko ikerketak aurre egin behar dion lehenengo zailtasuna hizkuntzaren zehaztasun falta da. Alde batetik, ezin dira sailkatu multzo berean, adibidez, irain edo beste tratua txar arin bat eta armen mehatxuekin egindako mehatxu bat. Hala eta guztiz ere, gaur egun bada tratua txarrei eta indarkeriari buruz modu orokorrean hitz egiteko joera, hau da, gaurko gizartearen indarkeriazko substratu bakar baten adierazle ezberdinak, bai forman bai intentsitatean, modu berean izendatzeko joera.

Beste alde batetik, mundu osoan onartzen diren kontzeptuen definizio zehatza falta denez, eta ikerketetan kideen arteko tratua txarrak edo jazarpena (edo bullyinga) neurtzeko era askotako tresnak erabiltzen direnez, ikerketetako emaitzen arteko konparagarritasuna oso mugatua da.

Azken bi hamarraldiotako ikerketarik gehienak mundu anglosaxoian, alemaniarrean eta eskandinaviarrean gauzatu dira; hala ere, emaitzak transferitzea eta konparatzea ez da erraza, ezaugarri kulturalak, erabilitako tresnak, ikasleen irakasmalak eta adinak, ikerketa ereduak eta abar ezberdinak direlako.

Batzuetan sinonimotzat hartzen diren terminoek definizio ezberdin asko dute, adibidez, tratua txarrak, jazarpena eta bullyinga. Jarraian ikerketarik garrantzitsuenetan erabiltzen diren zenbait definizio eskaintzen dira.

*"Erasotzaileak biktimaren gainean egiten duen boterekeria sistematikoa da" (Smith eta Sharp, 1994).<sup>2</sup>*

<sup>1</sup> Olweus, D. (2006) *Conductas de acoso y amenaza entre escolares*. Madrid. Ed. Morata

"Bullyinga jokaera oldarkorraren azpisail bat da, baina bereziki gaiztoa, bere burua nekez defenda dezakeen biktima jakin baten kontra egiten delako, kasu batzuetan behin eta berriro (...)" (Smith, Morita, Junger-Tas, Olweus, catalana, Slee, 1999)<sup>3</sup>

"Pertsona baten edo gehiagoren jokaera negatiboa (kaltegarria) da, nekez defenda daitekeen beste pertsona baten kontra zuzendua, nahita egindakoa eta errepikatzen dena" (Olweus, 2005)<sup>4</sup>.

Tratu txarren kontzeptuaren esanahiak ñabardura ezberdinak izaten ditu autorearen eta herrialdearen arabera. Ez dago, beraz, definizio bakar bat. Hala ere, profesionalen eta ikertzaileen artean adostasun handia dago hiru elementuren inguruan, oso garrantzitsuak hirurak eta definizio ezberdinetatik ondorioztatzen direnak.

Tratu txarrak definitzen dituzten ezaugarriak honako hauek dira:

- Nahita egindako ekintzak dira; helburua min egitea da, beldurra, larrimina... eragitea
- Erasotzailearen eta biktimaren arteko harreman asimetrikoa da: botere maila ezberdina dute.
- Behin eta berriro errepikatzen dira.

Tratu txarrak era askotakoak izan daitezke. Biktima aurrez aurre dagoenean edo ez dagoenean egindako ekintzak izan daitezke; ahoko arbuioaren, eraso fisikoaren edo gizarte-baztertzearen bidez gauzatu daiteke; pertsonaren kontrako ekintza zuzenekin edo zeharka, bere gauza pertsonalen edo senide eta lagunen kontrako erasoekin; mehatxuak, beldurra eta abarren bidez gauzatu daitezke.

Eskolako inguruneko tratu txarren ezaugarriak hobeto ulertu ahal izateko, beharrezkoa da tratu txartzat hartzen diren jokaera motak ezagutzea, deskribatzea, sailkatzea eta neurtu ahal izateko parametroak finkatzea.

2012ko ikerketa honetan, tratu txar mota bakoitzean adierazlearen balioa kalkulatzeko Lehen Hezkuntzako hamazortzi jokaeretako bat gutxienez kontuan hartu da, eta DBHko hemeretzi jokaeretako bat gutxienez. Jokaera horiek tratu txar motaren arabera sailkaturik daude ondorengo taulan.

Tratu txar motak	Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
	Tratu txar motari lotutako jokaerak	
Ahoko tratu txarrak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraintzea</li> <li>- Izengoitiak jartzea</li> <li>- Berari buruz txarto hitz egitea</li> </ul>	
Gizarte-baztertzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kasurik ez egitea</li> <li>- Parte hartzen ez uztea</li> </ul>	
Tratu txar fisikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jotzea</li> <li>- Egin nahi ez dituen gauzak egitera behartzea</li> <li>- Makilekin mehatxatzea</li> <li>- Beldurtzeko bakarrik mehatxatzea</li> </ul>	

<sup>2</sup> Smith, PK y Sharp, S (1994) *School Bullying. Insights and Perspectives*. London. Routledge

<sup>3</sup> Smith, PK; Morita, Y; Junger-Tas, J; Olweus, D; Catalano R y Slee, P. *The Nature of School Bullying. A Cross National Perspective*. London. Routledge

<sup>4</sup> *Bullying en la escuela: datos e intervención*. Centro Reina Sofía. IX Reunión Internacional sobre Biología y Sociología de la violencia: Violencia y escuela. Valentzia, 2005eko urriaren 6 eta 7.

<b>Gauzei erasotzea</b>	-Gauzak ezkutatzea -Gauzak apurtzea -Gauzak lapurtzea
<b>Cyberbullyinga</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- SMS, WhatsApp (mugikorra), Tuenti, Facebook (Internet) eta abarren bidez mezuak bidaltzea, mehatxatzeko, iraintzeko edo barre egiteko.</li> <li>- Gizarte sareetatik kentzea, txatetatik baztertzea.</li> <li>- Ikaskide baten argazkiak, irudiak edo mezuak Internet edo mugikorraren bidez zabaltzea bere kontra erabiltzeko.</li> <li>- Mugikorrarekin grabatzea eta grabazioa zabaltzea bere kontra erabiltzeko</li> <li>- Mugikorrarekin grabatzea, egin nahi ez duen zerbait egitera mehatxuz behartzeko</li> <li>- Ikaskide baten kontuan sartzea, eta bera balitz bezala mezuak edo irudiak bidaltzea, lagunekin arazoak izan ditzan.</li> </ul>
<b>Sexu erasoa</b>	----- - Sexualki jazartzea

Eskolako jazarpena teknologia berrietara ere zabaldu da. Cyberbullyinga edo ziberjazarpena deitzen den jazarpen berria irainak, mehatxuak, intimitatearen edo osotasun pertsonalaren kontrako erasoak eta abar gizarte-sareen bidez eta tresna teknologiko berrien bidez gauzatzea da. Adingabe batek Internet, sakelako telefonoa edo beste teknologia telematikoko baten bidez beste adingabe bat oinazetzen, mehatxatzen, jazartzen, umiltzen edo mintzen duenean, cyberbullying kasu baten aurrean gaude.

Bullyinga edo eskolako jazarpena eta ziberjazarpena ez dira pentsa litekeen bezain antzekoak. Kiden arteko abusua gertatzen da bi kasuetan, baina ez dute elkarren antz gehiagorik kasurik gehienetan. Ziberjazarpenaren jatorria ezberdina da, askotariko moduetan gauzatzen da, eta tratatzeko estrategiak eta bere ondorioak ere ezberdinak dira. Anonimotasunak, egiten den kaltea zuzen eta berehala ez ikusteak eta sarean alegiazko rola hartzeak arazo larri bihurtu dute ziberjazarpena.

Ikaskideen arteko tratu txarren Euskadiko ikerketaren 2012ko edizio honetan cyberbullyingari lotutako jokaera kopurua handitu egin da. Ikerketaren aurreko edizioetan, cyberbullyinga jokaera bakar bati lotzen zitzaion Lehen Hezkuntzan, eta hiru jokaerari DBHn. 2012ko edizioan kopurua nabarmen handitu da, bi hezkuntza-etapetan honako sei jokaera hauek sartu baitira:

<b>Cyberbullyinga</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- SMS, WhatsApp (mugikorra), Tuenti, Facebook (Internet) eta abarren bidez mezuak bidaltzea, mehatxatzeko, iraintzeko edo barre egiteko.</li> <li>- Gizarte sareetatik kentzea, txatetatik baztertzea.</li> <li>- Ikaskide baten argazkiak, irudiak edo mezuak Internet edo mugikorraren bidez zabaltzea bere kontra erabiltzeko.</li> <li>- Mugikorrarekin grabatzea eta grabazioa zabaltzea bere kontra erabiltzeko</li> <li>- Mugikorrarekin grabatzea, egin nahi ez duen zerbait egitera mehatxuz behartzeko</li> <li>- Ikaskide baten kontuan sartzea, eta bera balitz bezala mezuak edo irudiak bidaltzea, lagunekin arazoak izan ditzan.</li> </ul>
-----------------------	---

Jokaeren sailkapenaren barruan kategorizazio bat dagoela pentsa liteke, adibidez, ahozko erasoak, gizartetik baztertzea, pertsona bati kasurik ez egitea edo parte hartzen ez uztea ikuspuntu teorikotik, agian, jokaerarik arinenak izan litekeela; hala ere, jokaera horiek oso eragin kaltegarria izaten dute biktimarengan, eta batzuetan jokaera larriago batzuen abiapuntua izaten dira. Horregatik, tratu txarren indize orokorra egiterakoan, edozein motatako tratu txarretako jokaera bakar bat gertatzea nahikoa da indizean kontuan hartua izateko.



### Tratu txarren indize orokorra

Tratu txarretako hamazortzi edo hemeretzi jokaeretako bat gutxienez "sarritan" edo "beti" jasan duten ikasleen ehunekoa adierazten du, tratu txar mota edozein delarik ere.

Ikus daitekeenez, ikerketaren aurreko edizioetan egin den antzera, Euskadiko ikastetxeetan gertatzen diren ikaskideen arteko tratu txarrak identifikatzeko oso iragazki edo irizpide zorrotza erabili da, ikasleek eta zuzendaritza taldeek antzematen horrelako edozein jokaeraren berri izateko eta jaso ahal izateko.

### 3. IKERKETAREN HELBURUAK

2012ko txostena 2004, 2005, 2008 eta 2009an aurkeztutako datuen analisisen osagarria da. Datuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 80 ikastetxetako eta Lehen Hezkuntzako 84 ikastetxetako hirugarren zikloetako ikasleek eta zuzendaritza taldeek betetako galdera-sortetatik atera dira. Txostenak gai honi buruzko aurreko txostenetan aztertutako datuen parte bat jasotzen du:

- Tratu txarra berdinen artean. Bullying-a Euskadin. DBH. 2004ko abendua.
- Tratu txarra berdinen artean. Bullying-a Euskadin. Lehen Hezkuntza. 2005eko apirila.
- Ikaskideen arteko tratu txarrak Euskadin. Lehen txostena. 2008ko iraila.
- Ikaskideen arteko tratu txarrak Euskadin. 2009ko ikerketa.  
(ikus <http://www.isei-ivei.net/argitalpenak>).

Ikerketaren helburuak honako hauek dira:

- Ikastetxeetan dagoen arazoaren benetako eragina jasotzen duten datuak aztertzearen bidez, eskolako indarkeriaren aurkako sentsibilizazioa eta kontzientzia hartzea bultzatzea.
- Oldarrezko jokaerak errotik kentzearen aldeko neurri berriak mantentzea edo abian jartzea, eta horretarako oinarri objektibo bat eskaintzea. Larrizat hartu beharrean, etorkizunean izan ditzaketen ondorioak kontuan izan gabe eta permisibitate handiz, "haurren gauzak" balira bezala hartzen diren jokaerak ere kendu behar dira.
- Oraingo datuak eta aurrekoak konparatzearen bidez, arazoaren bilakaera eta hartutako neurrien eraginkortasuna ezagutzeko jarraipen bat egitea.

Helburu orokorrez gain, ikerketak honako helburu zehatz hauek ditu:

- Tratu txarretako jokaeren maiztasunaren bilakaera ezagutzea, lekukoak edo ikusleak, biktimak eta erasotzaileak edo emaileak diren ikasleen ikuspuntuak kontuan izanik.
- Ikaskideen arteko tratu txarretako jokaeren bilakaera deskribatzea eta sailkatzea.
- Tratu txarrak gertatzen direneko egoeren eta baldintzen joera ezagutzea: ikastetxeko zein lekutan gertatzen diren, biktimak norengana jotzen duen, nork esku hartzen duen, irakasleekiko harremanak...
- Ikastetxeetako tratu txarretako jokaeren maiztasuna eta bilakaera zuzendaritza taldeen ikuspuntutik ezagutzea.

- Ikastetxeek gatazka egoeren aurrean dituzten estrategiak deskribatzea: prebentzio neurriak, ondorengo neurriak eta non gauzatzen diren (ikastetxea, ikasgela, pertsona).
- Gatazkek azken urteotan izan duten bilakaera ikastetxeetako zuzendaritza taldeen ikuspuntutik ezagutzea.
- Zenbait aldagairen garrantzia aztertzea: ikasleen sexua, adina, irakasmaila, adin egokitasuna irakasmalarekiko, familiaren jatorria, indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), gurasoen ikasketa-maila eta abar.

#### 4. IKERKETAREN EZAUGARRIAK

Aurreko edizioetan bezala, Espainiako “Defensor del Pueblo”k eskolako indarkeriari buruzko ikerlanerako erabili zuen galdera-sortan oinarritzat hartu da. Egindako ikerketa guztietan zenbait aspektu erantsi eta moldatu dira, baina aldaketarik handienak 2012ko edizioak izan ditu. Beste ikerlan batzuetan erabili diren tresnen ordeztu, aipatutako galdera-sorta bereziki honetarako diseinatu zen: *"tratu txar mota bakoitza zuzen eta bereziki aztertzeke, mota bakoitzaren maiztasuna eta ezaugarriak zehaztasun handiagoz finkatu ahal izateke."*<sup>5</sup>

Aurreko edizioetan erabili den tresna bera erabili izanak emaitzen arteko konparazioak egiteko aukera eta Euskadin azken urteotan izan duen bilakaera aztertzeke aukera ematen du.

##### ➤ Lagina

Edizio guztietan bezala, oraingo ikerketan ere bi lagin ezberdin eta berezi erabili dira: bat, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko (5. eta 6. mailako) ikasleena; eta bestea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau mailetakoko ikasleena. Jokaera horiek maizen adin horietako ikasleen artean gertatzen direla pentsatu baitzen.

Laginak, oraingo edizioan ere, EUSTATEk diseinatu eta egin zituen. Laginketa ausaz hautatutako ikastetxeen konglomeratuen arabera gauzatu zen.

Hautatutako ikastetxe bakoitzetik ikasleen lagin bat ausaz aukeratu zen (gehienez 40 ikasle, gutxienez 10 ikasle). Hezkuntza-etapa bakoitzeko lagin adierazgarriak honako ezaugarri hauek ditu:

	Lehen Hezkuntza		DBH	
<b>Ikastetxe kopurua</b>	84		80	
- Publikoak	49	58,3%	32	40%
- Itunpekoak	35	41,7%	48	60%

	3.150		3.132	
<b>Ikasle kopurua guztira</b>	3.150		3.132	
- Mutilak	1.552	49,3%	1.568	50,1%
- Neskak	1.598	50,7%	1.564	49,9%

Ikasle kopurua mailaka	5.	6.	1.	2.	3.	4.
		1.563	1.587	785	783	779

<sup>5</sup> Informe del Defensor del Pueblo sobre violencia Escolar presentado en el Parlamento el 29 de noviembre de 1999 (Defensor del Pueblo, 2000)

Lehen Hezkuntzako ikasleen adina		Ehunekoa
10 urte	4	0,1
11 urte	1.394	44,3
12 urte	1.554	49,3
13 urte	190	6
14 urte	7	0,2

DBHko ikasleen adina	Ehunekoa	
12 urte	5	0,2
13 urte	630	20,1
14 urte	738	23,6
15 urte	755	24,1
16 urte	788	25,2
17 urte	160	5,1
18 urte	56	1,8

*Datuak ez daude haztatuak*, eta, beraz, ez dira zehatz-mehatz egokitzen ondorengo analisietan ageri diren datuetara, azken horiek euskal hezkuntza sisteman duten pisuaren arabera haztatu direlako.

### ➤ Metodologia

- Tresnak

Bi galdera-sorta erabili ziren: bata lagineko ikastetxeetako ikasleek betetzekoa eta, bestea zuzendaritza taldeek bete beharrekoa.

*Ikasleentzako galdera-sortaren ezaugarriak honako hauek dira:*

- Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan 5 motatako tratu txarretako 18 jokaera aztertu dira; DBHn, 6 motatako tratu txarretako 19 jokaera aztertu dira. Análisi konparatiboak egiteko, tratu txarrei buruzko ikerketa guztietan errepikatu diren jokaerak bakarrik hartu dira kontuan: 12 jokaera Lehen Hezkuntzan eta 13 jokaera DBHn.
- Ikasle guztiak galdera guztiei erantzun behar izan diete derrigorrez.
- Ikasleei galderatik kanpo geratzeko aukera galdera guztietan eman zaie honelako erantzunen bidez: “ez dut inoiz ikusi”, “ez zait inoiz gertatzen”, “ez dakit zer egiten duten” eta abar.
- Galderak pentsaturik daude ikasleak lekukoaren lekuan, biktimaren lekuan edo erasotzailearen lekuan jarri ahal izan daitezten. Tratu txarretako egoera eta jokaera berberak planteatu zaizkie erantzunak hiru ikuspuntu horietatik (lekukoa, biktima eta erasotzailea) eman ditzaten.
- Jokaera horiek non gertatzen diren ere aztertu da, eta, baita ere, biktimaren erreakzioa, inguruko jendearena eta abar.
- Mota batzuetako erantzunak daude: eskala mailakatu batean (“inoiz ere ez”, “batzuetan”, “sarritan” eta “beti”) aukeratzekoak, erantzun batzuen artean aukeratzekoak, erantzun bat baino gehiago aukeratzekoak.

Zuzendaritza taldeengandik informazioa biltzeko galdera-sorta ISEI-IVEIn prestatu zen. Ondorengo multzo hauek zituen:

- a) Ikastetxearen datuak
- b) Ikaskideen arteko tratu txarretako kasuen kopurua (ikasleen galdera-sortan kontuan hartzen diren jokaeren arabera), ikastetxean hartzen diren neurriak, bai prebentiboak bai ondorengoak.
- d) Arazo horren inguruan ikastetxean gauzatzen diren prestakuntza-jarduerak.
- e) Ikerketaren aurreko ikasturtean zehar jarritako zigor motak
- f) Gatazken joera ikastetxean azken hiru ikasturteotan.

- Galdera-sorta betetzea

Ausaz hautatutako ikasleek web aplikazio baten bitartez bete zuten galdera-sorta, nork bere ikastetxetik. Eskertzeko modukoa da ikastetxeek eta ikasleek aplikazio informatikoaren eskakizunetara moldatzeko egindako ahalegina eta lana.

ISEI-IVEItik ikastetxeen % 5ean galdera-sortaren betetzea "in situ" kontrolatu da.

Zuzendaritza taldeek ere web aplikazio baten bitartez bete zuten galdera-sorta.

**TRATU TXARREN BILAKAERA,  
EZAUGARRIAK ETA TRATAERA**



## 5. TRATU TXARREN BILAKAERA, EZAUGARRIAK ETA TRATAERA

Alde batetik tratu txarren bilakaera aztertu da 2005ean gauzatu zen lehen ikerketatik 2012ko oraingo ikerketara arte. Ikerketen arteko konparazioak egin ahal izateko, ikerketa guztietan mantendu diren jokaerak hartu dira kontuan ikerketa honetan, 12 jokaera Lehen Hezkuntzan eta 13 jokaera DBHn.

Beste alde batetik, ikerketaren 2012ko oraingo edizioaren ondorioak bereziturik aurkeztu dira. Gero eta neurketa zehatzagoa bilatu nahian, Lehen Hezkuntzako galdera-sortan bost jokaera erantsi dira, eta DBHkoan lau jokaera. 2012ko galdera-sortan egin diren aldaketen ondorioz, bilakaeraren analisiari dagozkion datuak eta oraingo edizioari dagozkionak, hurbilak badira ere, ez dira berdin berdinak.

Ondorengo taulan edizio guztietan aztertu diren jokaerak azaltzen dira tratu txar motaren arabera sailkatuta.

Tratu txar mota	Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
	Tratu txar motari lotutako jokabideak <sup>6</sup>	
2005 – 2008 – 2009 – 2012 urteak		
Ahozko tratu txarrak		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraintzea</li> <li>- Izengoitiak jartzea</li> <li>- Berari buruz txarto hitz egitea</li> </ul>
Gizarte-baztertzia		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kasurik ez egitea</li> <li>- Parte hartzen ez uztea</li> </ul>
Tratu txar fisikoak		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jotzea</li> <li>- Egin nahi ez dituen gauzak egitera behartzea</li> <li>- Makilekin mehatxatzea</li> <li>- Beldurtzeko bakarrik mehatxatzea</li> </ul>
Gauzei erasotzea		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gauzak ezkutatzea</li> <li>- Gauzak apurtzea</li> <li>- Gauzak lapurtzea</li> </ul>
Sexu erasoak	-----	- Sexualki jazartzea

2012ko edizioari dagozkion datuak bereziturik aztertzen direnean, aurreko edizioetako jokaerei cyberbullyingari dagozkionak ere erantsi behar dira, ondorengo taulakoak hain zuzen ere:.

Ikerketaren 2012ko edizioan erantsitako jokaerak	
Cyberbullyinga	<ul style="list-style-type: none"> <li>- SMS, WhatsApp (mugikorra), Tuenti, Facebook (Internet) eta abarren bidez mezuak bidaltzea, mehatxatzeko, iraintzeko edo barre egiteko.</li> <li>- Gizarte sareetatik kentzea, txatetatik baztertzia.</li> <li>- Ikaskide baten argazkiak, irudiak edo mezuak Internet edo mugikorraren bidez zabaltzea bere kontra erabiltzeko.</li> <li>- Mugikorrarekin grabatzea eta grabazioa zabaltzea bere kontra erabiltzeko</li> <li>- Mugikorrarekin grabatzea, egin nahi ez duen zerbaitegitera mehatxuz behartzeko</li> <li>- Ikaskide baten kontuan sartzea, eta bera balitz bezala mezuak edo irudiak bidaltzea, lagunekin arazoak izan ditzan.</li> </ul>


<sup>6</sup> Motaren arabera sailkatutako jokaeretako bat bakarrik gertatzea nahikoa da ikasleak tratu txar mota hori jasaten duela jasotzeko.

## A. TRATU TXARREN INDIZEA ETA TIPOLOGIA

- Gehiago handi batek esan du ikaskideengandik ez duela inolako tratu txarrik sufritu. Aurreko ikerketako egoera mantendu da tratu txarrik sufritu ez duten DBHko ikasleen ehunekoa (% 85,4) Lehen hezkuntzako ikasleen ehunekoa (% 79) baino handiagoa baita, ehuneko horiek ikerketaren aurreko edizioetako ehunekoak baino apur bat apalagoak diren arren.**

2012ko ikerketari dagozkion datuek adierazten dute Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen % 79k eta DBHko ikasleen % 85,4k ez duela inolako tratu txarrik jasan.<sup>7</sup> Bi etapetako ikasleen arteko aldea aurreko edizioetakoan parean mantendu da, bost eta sei punturen artean.

Ondorengo grafikoan oraingo edizioeko ehunekoak aurreko edizioetako ehunekoekin konparatzen dira, eta bertan ikus daitekeenez, tratu txarrik ez dutela jasan dioten ikasleen ehunekoak apalagoak dira 2012ko edizioan, bai Lehen Hezkuntzaren kasuan bai DBHren kasuan.



- Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko tratu txarren indize orokorra 2012an % 21 da, eta DBHko indize orokorra % 14,6ra jaitsi da. 2009an gauzatu zen aurreko edizioeko indizearekin konparaturik, Lehen Hezkuntzan 4 puntu handitu da, eta DBHn, 2,8 puntu.**

Tratu txarren indize orokorra kalkulatzeko, ikasle guztien erantzunen artean, ikasleak ikasturtean zehar, ikerketaren edizio guztietako *tratu txarretako jokaera* komunetako *bat gutxienez "sarritan"* eta *"beti"* maiztasunez sufritu duela dioten erantzunak hartzen dira kontuan. Oraingo edizioan tratu txarren indizea Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan % 21ekoa izan da eta DBHn, % 14,6koa.


Ondorengo grafikoan tratu txarren indize orokorraren bilakaera azaltzen da 2005ean egindako ediziotik hona, bai Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklokoa bai DBHkoa. Indizeak tratu txarren ehunekorik apalena 2008an izan zuen, eta apurka igotzen joan da ondorengo edizioetan, 2012an ikerketaren edizio guztietako ehunekorik altuena izan duelarik.<sup>8</sup>

<sup>7</sup> Oraingo edizioan, aurrekoetan bezala, tratu txarren indizea, motak eta abar adierazteko, "sarritan" eta "beti" maiztasunen batura hartu da kontuan.

<sup>8</sup> Tratu txarren indize orokorraren igoeraren arrazoiak bilatu nahian, azken bi edizioetako laginen analisi konparatiboa gauzatu da, bai Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, bai DBHn. Bi laginetako ehunekoak ikasleen sexua, irakasmaila, ikastetxearen ezaugarriak, lurraldea, irakasmaila errepikatzea eta familiaren jatorria kontuan izanik aztertu dira. Ondorioek adierazi dute 2009ko eta 2012ko laginen artean ez dagoela ia ezberdintasunik, eta, beraz, indizearen igoera ezin zaiola laginen arteko aldeari egotzi.




Tratu txarren indizearen bilakaera  
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta DBHn.



Ikastetxeetan tratu txarren, bizikidetzaren eta abarren inguruan egindako lanak denbora aurrera joan ahala kontzientzia handitzea ekarri du. Gai horien inguruko prestakuntzak eta informazioak, agian, tratu txarretako jokoerak tratu txar bezala gero eta gehiagotan eta errazago hartzea ekarri dute. Gainera, egoeraren diagnosi egokiagoa, iraunkorragoa eta zehatzagoa egiteak, agian, pentsarazi lezake tratu txarretako kasuen kopurua handituz doala, baina benetan handituz doana tratu txarretako jokoerak tratu txar bezala ezagutzeko ahalmena da; lehen tratu txarretako jokoera horiek beste zerbait bezala hartzen ziren eta ez zitzairen behar beste garrantzirik ematen.

**2012ko tratu txarren indize orokorra.** 2012ko ikerketan kontuan hartu diren tratu txarretako jokoerak 18 izan dira Lehen Hezkuntzan eta 19 DBHn, jokoera kopurua aurreko ikerketekiko (12 edo 13 jokoera) handitu delarik. Ondorioz, datu hauek eta aurreko ikerketetan aurkeztutakoak ez dira berdin berdinak.

2012. Tratu txarren indizea etapa bakoitzean




Informazio zehatzagoa lortzeko, dokumentuaren Eranskinean ikerketan aztertutako jokoera bakoitzaren ehunekoak ikus daitezke ikasle-biktimen ikuspuntutik maiztasunetako bakoitzean eta sexuaren arabera.

**3. Ikasleen adina eta irakasmaila tratu txarren indizearekin erlazionatzen da, ehunekorik altuenak laginako irakasmailarik baxuenetan ikusten baitira –Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa– eta, oro har, irakasmaila gora joan ahala ehunekoak jaitsi egiten baitira.**

Arestian aipatu den bezala, tratu txar gehien sufritzen dutenak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikaslea dira, eta indizea jaisten doa DBHko irakasmaitan zehar, guztira hamar puntu baino gehiago jaisten delarik, Lehen Hezkuntzako 5. mailako % 22,7tik DBHko 3. mailako % 11,1era. Gauza bera gertatu izan da ikerketaren aurreko edizioetan, eta portaera hori gai horri buruzko beste ikerlan batzuetan ere ikusi ohi da.

Grafikoan tratu txarretako jokaera bat gutxienez jasan duten ikasleen ehunekoa ikus daiteke irakasmaila bakoitzean.

**Tratu txarretako jokaera bat gutxienez jasan duten ikasleen ehunekoaren bilakaera irakasmaila bakoitzean**



2012an, ikus daitekeenez, tratu txarretako jokaera bat gutxienez sufritu duten ikasleen ehunekoa irakasmaila guztietan igo da aurreko ikerketekiko, DBHko 2. mailan izan ezik, 2005eko edizioarekin konparaturik, eta DBHko 3. mailan izan ezik 2009ko edizioarekin konparaturik.


Hala eta guztiz ere, DBHko 4. mailan gorakada bat ikus daiteke, eta bere arrazoiak ulertu nahian irakasmaila horretan ikasleak biktimizatzeari eragin ohi dioten zenbait aldagai aztertu dira, hala nola, irakasmaila horretan mutilen ehunekoa handiagoa izatea, atzerriko ikasle ugari egotea, errepikatzaile ugari egotea eta gurasoen ikasketa-maila. Aldagaiak aztertutakoan, irakasmaila guztietan antzerako datuak mantentzen direla ikusi da, eta, beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken irakasmaitan gertatzen den biktima kopuruaren igoeraren azalpena ez dago aldagai horietan.

Oro har, pentsa liteke adina jokaera oldarkorren bilakaerari eragiten dion faktoreetako bat dela, ikasleek jokaera oldarkorrek geldiarazteko edo bideratzeko duten ahalmena eta ikaskideekiko gatazkak konpontzeko beste estrategia batzuk eskuratzeko duten ahalmena, adinean, era irakasmaitan, aurrera joan ahala, handitu egiten baitira. Hau da, jokaera horiek

duten jaitiera-prozesu positiboa ez zaie arrazoi biologikoei bakarrik egotzi behar; ziur aski ikastetxeetan gai horien inguruan egiten den lanaren ondorioa da eta ikastetxeetako sozializazio eraikitzailearen prozesuaren ondorioa.

**2012ko tratu txarren indizea irakasmilaren arabera.** 2012ko edizioari dagokion indizea ikertutako irakasmiletako bakoitzean apur bat aldatu da aurreko datuekiko, Lehen Hezkuntzan aztertu diren 18 jokoerak eta DBHn aztertu diren 19 jokoerak kontuan hartzen badira, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala.

**2012. Tratu txarretako jokoera bat gutxienez jasan duten ikasleen ehunekoa irakasmila bakoitzean**




#### 4. Ikertutako bi etapetan maiztasunik handiena duen jokoera ahozko tratu txarrak dira, gainontzeko motetako jokoerak maiztasun apalagoa dutelarik, bai Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Bi etapetan sarrien gertatzen den tratu txar mota ahozko tratu txarrak dira (*iraintzea, izengoitiak jartzea eta beste bati buruz txarto hitz egitea*). 2012ko edizioan ahozko tratu txarrak % 15,3ra heldu dira Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, 2009an egindako azken ikerketatik lau puntu inguru igo delarik. DBHren kasuan tratu txarrak % 10,9ra heldu dira, 2009ko ediziotik hiru puntu baino gehiagoko igoera izan dutelarik.


Bi hezkuntza-etapetan maiztasunik urriena duten jokoerak kontaktu fisikokoak dira, biktimaren gainean zuzen egiten direnak eta larriagotzat hartzen direnak, hala nola "Tresnekin mehatxatzea", "Sexualki jazartzea" eta "Ikaskide bat, egin nahi ez dituen gauzak egitera mehatxuz behartzea". Horien maiztasuna txikia da.

Ondorengo grafikoetan mota bakoitzeko tratu txarren bilakaera azaltzen da, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta DBHn ikerketaren lau edizioetan.

Tratu txarren bilakaera Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan



Trautu txarren bilakaera DBHn




Ikerketaren 2012ko edizioan gehien igo diren tratu txarrak, alde batetik, "ahozko tratu txarrak" dira, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan 4 puntu eta DBH hiru puntu baino apur bat gehiago, eta bestetik, "gizarte-baztertzea", Lehen Hezkuntzan bakarrik, baina 2,4 puntuko igoera kezkarriarekin. Igoera txikiagoa izan duten arren, aipatzeko modukoa da "tratu txar fisikoei" lotutako jokaerak puntu bat igo direla bi hezkuntza-etapetan.

Tratu txarretako ahozko jokaerak gizartean oso larritzat hartzen ez direnez, pentsa liteke arazoa ez dela hain larria. Baina hori ez da egia. Ahozko erasoak tratu txarren hasierako zantzu bezala ulertu behar dira, mota larriago bateko tratu txarrak piztu baititzakete. Gainera, oso kezkarria da horrelako tratu txarrak behin eta berriro jasotzeak biktimaren autoestimuan izan dezakeen eragina eta hori bezain kezkarriak dira, baita ere, biktimak ahozko erasoen ondorioz taldean integartzeko izan ditzakeen zailtasunak.

**2012ko indizea tratu txar motaren arabera.** 2012ko indizea finkatzeko, oraingo edizioa Lehen Hezkuntzan aztertu diren 18 jokoerak eta DBHn aztertu diren 19 jokoerak hartu dira kontuan, eta, beraz, aurreko edizioetan aurkeztutako datuak apur bat ezberdinak dira.

2012. Tratu txar motak Lehen Hezkuntzan eta DBHn




## 5. Tratu txarrak jasaten dituzten ikasle gehienak tratu txar bakar bateko biktimak dira.

Jarraian tratu txar moten kopurua aztertzen da. *Euren burua biktimatzat duten ikasleen erantzunak bakarrik hartu dira kontuan.* Tratu txarren indizea biktimaren ikuspuntutik finkatzeko honako mota hauetako tratu txarrei lotutako 12 jokoerak hartu dira kontuan: *ahozko tratu txarrak, gizarte-baztertzeta, gauzei erasotzea, tratu txar fisikoak eta sexu jararpena (DBHn bakarrik).*


Grafikoan, ikerketaren lau edizioetako bilakaera konparatu ahal izateko, biktimen ehunekoaz azaltzen da jasotzen duten tratu txarren kopuruaren arabera. Konparazioa egin ahal izateko, Lehen Hezkuntzan gehienez 4 motatako tratu txarrak hartu dira kontuan, eta DBHn gehienez 5 motatako tratu txarrak, orain arte gauzatutako ikerketa guztietan horrela egin baita.

Jasandako tratu txarren kopuruaren bilakaera ikasle biktimen esanetan Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan




Logikoki, ehunekorik altuena inolako tratu txarrik ez dutela jasaten dioten ikasleei dagokie, bai Lehen Hezkuntzan bai DBHn. Ikerketaren edizio guztietan joera bera ikusten den arren, 2012ko edizioako ehunekoak oro har altuagoak dira.

#### Jasandako tratu txarren kopuruaren bilakaera DBHko ikasle biktimen esanetan



**2012ko indizea tratu txarren kopuruaren arabera.** 2012ko indizea tratu txarren kopuruaren arabera finkatzeko, oraingo edizioa Lehen Hezkuntzan aztertu diren 18 jokoarak eta DBHn aztertu diren 19 jokoarak hartu dira kontuan, eta, beraz, aurreko edizioetan aurkeztutako datuak apur bat ezberdinak dira.


#### 2012. Tratu txar moten kopurua Lehen Hezkuntzan eta DBHn



**6. Lehen Hezkuntzako ikasleen % 30 inguruk eta DBHko ikasleen % 25 inguruk diote inoiz edo behin ikastetxera joateko beldurra izan dutela. Arrazoi nagusiak bi dira: alde batetik, ikasgelako lana, notak eta etxerako lanak; bestetik, ikaskide baten edo batzuen beldur izatea.**

Jarraian ikasleak ikastetxera joateko beldur diren aztertzen da, eta horrela bada, beldurraren arrazoiak ere aztertzen da. Inoiz edo behin ikastetxera joateko beldur izan diren ikasleen ehunekoak oso antzerakoak dira ikerketaren azken bi edizioetan eta 2005eko ediziokoak bezalakoak. Jarrera hori sarriago gertatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen artean baino.


**Ikastetxera joateko beldurraren bilakaera**



Grafikoan ardatza % 80an kokatu da ehunekoak aiseago konparatu ahal izateko.

Beldurra "sarritan" eta "ia egunero" sortarazten duten faktoreen artean, grafikoan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan faktorerik nagusienak ikaskide baten edo batzuen beldurra eta ikasgelako lanei lotutako beldurra dira. DBHn, berriz, ikasgelako lanari, notei eta etxerako lanei lotutako beldurra % 5 altuagoa da ikaskide baten edo batzuen beldurra baino. Gainontzeko faktoreak antzeko ehunekoetan mantentzen dira, ehuneko txikietan bi etapetan.

## Ikastetxera joateko beldurra. Arrazoien bilakaera



Lehen Hezkuntzan, ikaskide baten edo batzuen beldurra igo egin da (3,5 puntu) 2009ko edizioarekin konparaturik (emaitza koherentea etapa horretako tratu txarren indizearen igoerarekiko). Datu positiboen artean aipatu beharrekoak dira ikastetxe berri batera joateko beldurra eta irakasle baten edo batzuen beldurra jaitsi da (2 puntu baino gehiago).

DBHn arrazoi akademikoei lotutako beldurra eta ikastetxe berri batera joateko beldurra nabarmen (6,9 puntu) jaitsi da; ikaskide baten edo batzuen beldurra, berriz, igo egin da (3,3 puntu). Gainontzeko faktoreak oso ehuneko hurbiletan mantentzen dira.


## 7. Biktimaren profilaren deskribapena egiterakoan, ikertutako bi etapetan aldeak ikus daitezke zenbait aldagaitan, hala nola ikasleen sexua, familiaren jatorria, adinaren egokitasuna irakasmilarekiko, gurasoen ikasketa-maila eta ikastetxearen beste ezaugarri batzuk.

2012an gauzatutako ikerketan hainbat aldagairi buruzko informazioa bildu dugu, eta informazio horri esker hezkuntza-etapa horietan biktima sentitzen direla dioten ikasleen profilaren ezaugarri batzuk deskriba ditzakegu. Aldagai batzuk pertsonalak dira, sexua kasu, beste batzuk familiari lotutakoak, adibidez jatorria edo gurasoen ikasketa-maila, eta beste batzuk ikastetxeari lotutakoak, hala nola hezkuntza-sarea, irakasmila edo adin egokitasuna irakasmilarekiko. Aldagai guztiak laguntza handikoak dira hezkuntza-etapa bakoitzeko tratu txarren egoerak eta ezaugarriak ulertzeko.

Ondorengo grafikoetan aldagai guztiak azaltzen dira, eta aldagai bakoitzaren kasuan aztertzen da hezkuntza-etapa bakoitzean tratu txarren 2012ko indizearen ginetik ala azpitik dagoen. Horietako aldagai batek balio negatiboa duenean, tratu txarretako biktimen ehuneko etapaeko tratu txarren indize orokorrari dagokion ehuneko baino apalagoa dela esan nahi du. Aldagaiak balio positiboa duenean, biktimen ehuneko etapa batez bestekoa baino handiagoa dela adierazten du, eta, beraz, arreta berezia eskatzen duten egoerak eta esparruak direla.



Tratu txarren indize orokorra. Lehen Hezkuntzako 3. zikloa. 2012  
% 21,7




Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen artean, lehen esan dugun bezala, tratu txarren 2012ko indize orokorra % 21,7 da, eta honako egoera hau ikus daiteke:

- Tratu txarretako biktima gehiago dago mutilen artean, aldeak txikiak diren arren.
- Biktimen ehunekoa handiagoa da Lehen Hezkuntzako 5. mailan etapako azken mailan baino.
- Biktimizazio kasu gehiago gertatzen dira ikasle etorkinen artean eta irakasmillarekiko adin egokia ez duten ikasleen artean.
- Gurasoen ikasketa-maila bigarren hezkuntza baino handiagoa ez den kasuetan, biktimen ehunekoa etapako batez bestekoa baino handiagoa da.
- Maila sozio-ekonomiko eta kultural (ISEK) apaleko ikasleen artean ere biktimen ehunekoa handiagoa da.
- Azkenik, eta aldea oso txikia bada ere, biktima gehiago dago ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatuetan baino.

## Tratu txarren indize orokorra DBH. 2012

14,9%



DBHko ikasleen artean, lehen esan dugun bezala, tratu txarren 2012ko indize orokorra % 14,9 da, eta honako egoera hau ikus daiteke:

- Tratu txarretako biktima gehiago dago mutilen artean nesken artean baino, aldea txikia den arren.
- Biktimen ehuneko handiagoa da etapako I. mailan, ikasle etorkinen artean eta irakasmilarekiko adin egokia ez duten ikasleen artean.
- DBHn itunpeko ikastetxeetako ikasleen artean, Lehen Hezkuntzan ez bezala, biktima gehiago dago –kasu horretan ere aldea oso txikia da. Gurasoen ikasketa-mailarik altuena bigarren hezkuntza den kasuetan, biktimen ehuneko handiagoa da.
- Badirudi maila sozio-ekonomiko eta kulturalak (ISEK) ez duela eraginik etapako biktima kopuruan.

**8. Cyberbullyingaren maiztasun orokorra Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan % 11,3koa da eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan % 10,3koa; tratu txar horren maiztasun larria Lehen Hezkuntzan % 2,6raino heltzen da eta DBHn % 1,8raino**

Sarreran azaldu den bezala, Euskadiko ikaskideen arteko tratu txarrei buruzko ikerketaren 2012ko oraingo edizioan cyberbullyingari lotutako jokaera kopurua handitu egin da. Ikerketaren aurreko edizioetan cyberbullyingari lotutako jokaera bakar bat aztertzen Lehen Hezkuntzan eta hiru jokaera DBHn. 2012ko edizioan jokaera kopurua nabarmen handitu da, hezkuntza-etapa bietan honako sei jokaera hauek aztertzen direlarik:

<b>Cyberbullyinga</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- SMS, WhatsApp (mugikorra), Tuenti, Facebook (Internet) eta abarren bidez mezuak bidaltzea, mehatxatzeko, iraintzeko edo barre egiteko.</li> <li>- Gizarte sareetatik kentzea, txatetatik baztertzea.</li> <li>- Ikaskide baten argazkiak, irudiak edo mezuak Internet edo mugikorraren bidez zabaltzea bere kontra erabiltzeko.</li> <li>- Mugikorrarekin grabatzea eta grabazioa zabaltzea bere kontra erabiltzeko</li> <li>- Mugikorrarekin grabatzea, egin nahi ez duen zerbait egitera mehatxuz behartzeko</li> <li>- Ikaskide baten kontuan sartzea, eta bera balitz bezala mezuak edo irudiak bidaltzea, lagunekin arazoak izan ditzan</li> </ul>
-----------------------	--

Cyberbullyingaren maiztasuna aztertzerakoan oso kontuan hartu behar da ikerlanetan cyberbullyinga gertatzen deneko maiztasunari buruzko zenbait erreferentzia ezberdin erabiltzen direla. Gainera, eta are garrantzitsuagoa oraindik, cyberbullyingaren analisisian bi motatako indizeak erabiltzen dira: maiztasun hertsia, "sarritan" eta "beti" maiztasunek osatzen dutena eta txosteneko gainontzeko tratu txar motekin konpara daitezkeen datuak eskaintzen dituen; eta maiztasun orokorra, aurreko bi maiztasunek gehi "batzuetan" maiztasunak osatua, maiztasun zabalagoa jasotzen duena<sup>9</sup>.

Ondorengo grafikoan bi mota horietako indizeak azaltzen dira: maiztasun hertsia ("sarritan" eta "beti" maiztasunak) eta maiztasun orokorra ("batzuetan", "sarritan" eta "beti" maiztasunak) bi hezkuntza-etapetan<sup>10</sup>.

Cyberbullyingaren indizeak ohiko bullyingaren joera jarraitzen du, hots, kasu gehiago gertatzen dira Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan DBHn baino. Hala eta guztiz ere, mota horretako tratu txarretan bi etapetako ehunekoak hurbilago daude: bullyingaren kasuan etapen arteko aldea ia zazpi puntukoa da eta cyberbullyingaren kasuan, berriz, puntu batekoa da.

<sup>9</sup> Cyberbullying bigarren indize hori erabiltzearen arrazoia hau da: gainontzeko tratu txar motetan ez bezala, cyberbullyingari lotutako edozein ekintzak edo jokaerak, behin bakarrik gauzatzen bada ere, epe luzerako iraunkortasuna edo eragina duela; gizarte sareetan jarritako esaldi edo argazki iraingarri batek hedatzeko ahalmen handia du, eta bertan mantentzea edo kentzea nekez kontrola daiteke.


<sup>10</sup> Maiztasun orokorreko datuak nahiko koherenteak dira beste ikerlan batzuekin. Adibidez, Pfizer Fundazioak 2011n egindako "Gazteria eta indarkeria" ikerketak dioenaren arabera, Espainiako 12-18 urte bitarteko nerabeen % 11,6k tratu txar psikologikoak jasan dituztela Sarearen bidez, eta % 8,1ek telefono mugikorraren bidez. Izan ere, EEBBetan cyberbullyinga % 80 baino gehiago handitu zen 10 urtetan, eta ikertzaileek igoera nabarmena nabaritu zuten 2000ko % 6tik 2005eko % 9ra eta 2010eko % 11ra.

Generaciones Interactivas Foroak Nafarroako Unibertsitatetik "La generacion interactiva en españa. Niños y adolescentes ante las pantallas" egindako ikerketan 6-18 urte bitarteko 13.000 haur eta nerabe elkarrizketatu ziren, eta IKT teknologien erabilerari buruzko zenbait datu eskaini zituen: % 13k aitortzen du mezu edo argazki iraingarriak jaso dituela Interneten bidez eta haurren % 10ek cyberbullyinga jasan dituela. 2009ko Eurobarometroak aipatzen zuen cyberbullyinga dagoeneko 6 urteko haurrentzat mehatxu bat dela online gizarte sareetan.

Deustuko Unibertsitateko ikertalde batek Bizkaiko hamar ikastetxetako 31 ikastaldetako 12-17 urte bitarteko 1431 neraberekin egindako ikerlan batean, 2008an argitaratua, cyberbullyingari lotutako hamaika jokaerari buruzko zenbait datu aurkeztu ziren, eta ehunekoak apur bat altuagoak ziren

(<http://paginaspersonales.deusto.es/ecalvete/documentos-para-la-web/cyberbullying-en-adolescentes.pdf>).

Cyberbullying tratu txarren indizea. 2012



Beste ikerketa batzuetan, mota horretako tratu txarren maiztasunari buruzko datuek gorabehera handiak izaten dituzte, bai maiztasun orokorrean bai ezaugarrien eta aldagaien analisisan. Maite Garaigordobil EHU/UPVko irakasleak, "Prevalencia y consecuencias del cyberbullying: una revisión" artikuluan<sup>11</sup>, tratu txar horren maiztasuna eta ondorioak aztertu dituzten ikerlanen analisi sakona egin du, eta laburpen gisa honako hau esan du: "Ikasleen % 40tik % 55era bitarteko kopurua tratu txarretan inplikaturik dago modu batean edo bestean (biktima, erasotzaile edo ikusle bezala); % 20tik % 50era bitarteko kopuruak biktimizazio esperientzien berri ematen du; % 2tik % 7ra bitarteko kopurua bakarrik izan da biktima modu hertsian. Zenbait ezberdintasun antzematen dira herrialdeen artean, laginetako ikasleen adinen artean eta informazio jasotzeko kontuan hartzen den debora tarteen arabera".


Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko indize orokorraren analisisan, tratu txar hori jasan dutela dioten mutilen ehunekoa (% 12) neskena (% 10,7) baino handiagoa dela ikusten da, kasuen maiztasuna Lehen Hezkuntzako 6. mailan (% 11,9) 5. mailan baino 1,1 puntu handiagoa dela eta ehunekorik altuena hamabi urtekoen artean (% 12,3) eta hamahiru urtekoen artean (% 15,8) gertatzen dela. Bada, bestalde, azpimarratu beharreko beste datu bat: Cyberbullyingaren indizea 6,5 puntu altuagoa da irakasmila bat gutxienez errepikatu duten ikasleen artean (% 17,2) irakasmilarekiko adin egokia duten ikasleen artean baino.

DBHko ikasleen kasuan, Lehen Hezkuntzan ez bezala, tratu txar hori jasan dutela dioten nesken ehunekoa (% 11,1) mutilen ehunekoa (% 9,4) baino altuagoa da. Irakasmilari gagozkiolarik, ehunekoa askoz apalagoa da 2. zikloko irakasmiletan (% 8,2 DBHko 3. mailan eta % 7 DBHko 4. mailan) hasierako zikloko irakasmiletan baino (% 12,2 DBHko 1. mailan eta % 13rainokoa DBHko 2. mailan, guztietan altuena). Etapa horretan, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ez bezala, cyberbullyingari dagokionez, ikasle errepikatzaileen eta adin egokiko ikasleen ehunekoaren arteko aldea oso txikia da (% 11,2 ikasle errepikatzaileen artean eta % 10 adin egokiko ikasleen artean).

Azkenik, ondorengo grafikoan maiztasun hertsari ("sarritan" eta "beti" maiztasunak) dagokion ehunekoa azaltzen da tratu txar horretako jokaeretakoko bakoitzean. Ikus daitekeenez, bi etapetako datuak konparatzen badira, gizarte sareen erabilerari lotutako jokaeren ehunekoa handiagoa da Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, eta DBHn ehunekorik altuenak baliabide horiek erabiltzeko trebetasun handiagoa (adibidez, grabatzea eta zabaltzea, mehatxatzeko grabatzea) eskatzen duten jokaerenak dira.

<sup>11</sup> <http://www.iipsy.com/volumen11/num2/295/prevalencia-y-consecuencias-del-cyberbullying-ES.pdf>

## 2012. Cyberbullying jokaeren ehunekoa bi hezkuntza-etapetan



**9. Ikerketaren 2012ko edizioan, hirugarren zikloko ikasleek eta batez ere DBHko ikasleek esaten dute ikaskide batzuk beren sexu-orientazioagatik edo neska edo mutila izateagatik baztertu dituzteneko kasuak ikusi dituztela. Jokaera hori bereziki deigarria da DBHn gay bezala hartzen diren ikasleen kasuan.**


2012ko inkestan ikasleei galdetu zitzairen ea ikaskide bat bere sexu-orientazioagatik (gay edo lesbiana izatea, bere harreman sexual edo afektiboei buruzko esamesak eta zurrumurruek kontatzea) edo neska edo mutila izateagatik etengabe baztertzen zuteneko kasurik ikusia zuten. Galdera horiek berriak dira eta aurreko edizioetan ez zen horiei buruzko informaziorik jaso. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak, eta bereziki Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, berdintasunaren alde eta sexu-arrazoiengatik baztertzearren kontra (*Berdintasuna programa*) emandako bultzadaren ondorioz, gai horiek espresuki sartzea beharrezkoa zela erabaki zen.

Beste mota batzuetako tratu txarretako jokaerekin bezala, bi hezkuntza-etapetako ikasle gehienek (ia % 70ek Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta % 60k DBHn) diote ez dutela inoiz ikusi ikastetxean inor arrazoi horiengatik baztertu denik.

Hala ere, sexu-diskriminazioko jokaera horiei dagokienez, zenbait aspektu oso kontuan hartu behar dira:

- DBHko ikasleen % 23,6k dio ikaskide bat gay izateagatik etengabe baztertu dutela ikusi duela; Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ere % 12k dio horrelako jokaera baten lekuko izan dela.
- Lesbianatzat hartzen diren ikasleen kasuan, ehunekoak askoz apalagoak dira; DBHko ikasleen % 7k baino apur bat gehiagok eta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen % 5ek diote ikaskide bat arrazoi horregatik etengabe baztertu duteneko kasuak ikusi dituztela.
- Oso datu deigarri bat: DBHko ikasleen % 10ek baino gehiagok diote ikaskide bat, bere sexu-orientazio edo bere harreman afektibo eta sexualei buruzko esamesen bidez, etengabe baztertu duteneko kasuak ikusi dituztela.
- Azkenik, ikasleen esanetan, ikaskide bat mutila edo neska izateagatik baztertu duteneko kasuen ehunekoa handiagoa da Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan DBHn baino.

## 2012. Etengabe baztertzearren arrazoiak ikasleen esanetan




## B. TRATU TXARREN NONDIK NORAKOAK

### 10. Tratu txarretako jokaeren ehunekorik altuena Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan jolastokian gertatzen da eta DBHn, ikasgelan. Berdin gertatu da egindako ikerketa guztietan.

Oro har, tratu txarren gertaleku nagusia eskolatzea aurrera joan ahala aldatu egiten dela esan daiteke. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan tratu txarren gertaleku nagusia jolastokia da, ehunekoa gainontzeko lekuei dagokien ehunekoaren bikoitza delarik. Irakasmailetan gora joan ahala, ikasgelak gero eta garrantzi handiagoa hartzen du, DBHn tratu txarren gertaleku nagusi bihurtu arte, etapa horretan ere jolastokian tratu txarretako hainbat jokaera gertatzen diren arren.


Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan tratu txarretako jokaerak ikasleak jolastokian daudenean gertatzen dira maizen, maiztasunean igoera bat egon da 2009ko ediziotik (% 32,6) 2012ko ediziora (% 38,9), baina 2005eko ehunekora heldu gabe. Grafikoan ikus daitekeenez, gertaleku horren nagusitasuna mantendu egin da egindako ikerketa guztietan.

Hezkuntza-etapa horretan jolastokian gertatzen diren tratu txarretako jokaerarik arruntenak ahozko tratu txarrak (*iraintzea, izengoitiak jartzea, norbaitez txarto hitz egitea*) eta gizarte-baztertzeta (*kasurik ez egitea, jardueretan parte hartzen ez uztea*) izaten dira. Ikasgelan, berriz, jokaerarik arruntenak gauzei erasotzeari dagozkionak izaten dira (*gauzak ezkutzea, apurtzea edo lapurtzea*).



DBHn, tratu txarren ehunekorik handiena ikasgelan gertatzen da (% 32,5), ziur aski irakasle aldaketa gertatzen den bitartean, eta horrek agerian uzten du ikasgela ez dela ikasleak ikaskideengandik tratu txarrak jasatetik salbu dauden lekua. Horrela gertatu da orain arte egindako ikerlan guztietan, 2009ko edizioko datuekin konparaturik etapa horretan 3 puntuko jaitziera gertatu den arren, grafikoan ikus daitekeen bezala.

DBHn, Lehen Hezkuntzan bezala, ahozko tratu txarrak dira arruntenak jolastokian, baina maiztasuna askoz txikiagoa da Lehen Hezkuntzan baino. Ikasgelan gertatzen diren jokaerarik arruntenak gauzei erasotzea eta ahozko tratu txarrak dira, biak antzeko maiztasunarekin.




### I I. Bi hezkuntza-etapetan eta aurreko edizioetan bezala, tratu txarrak batez ere biktimaren ikastalde bereko mutilek ematen dituzte.

Ikerketaren oraingo edizioan, aurrekoetan bezala, bai Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan bai DBHn tratu txarrak gehienetan mutil talde batek ematen ditu.

Ikerlan askotako emaitzek esaten dute eskolako tratu txarren ezaugarrietako bat erasotzaileek taldean jardutea dela, eta ikerlanaren oraingo edizioako datuek egiaztatu eta agerian uzten dute ezaugarri hori. Ikaskideen arteko tratu txarrak hein handi batean talde-jarduera denez, esku hartzea eta trataera ere talde-lanaren ikuspuntutik planteatu behar dira.


Ondorengo grafikoetan, datuek adierazten dute, ikerketaren 2012ko edizioan, bi hezkuntza-etapetan erasotzaileen ehunekorik altuena mutilek osatutako talde bati dagokiola. Hala ere, erasotzaileak mutilek eta neskek osatutako talde bat dela dioten ikasleen ehunekoa apur bat igo da.



Grafikoan goitik beherako ardatza % 50ean kokatu da ehunekoak aiseago konparatu ahal izateko




## Erasotzaileen bilakaera DBHn



Grafikoan goitik beherako ardatza % 50ean kokatu da ehunekoak aiseago konparatu ahal izateko

Ikasle erasotzaileen irakasmilari dagokionez, 2012ko datuek erakusten dute Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasle erasotzaileen % 42,5 eta DBHko ikasle erasotzaileen % 45,7 biktimaren ikastaldekoak direla. Hau da, inplikaturako ikasleek jarduerak, lekuak eta harremanak partekatzen dituzte egunero ikasgelan. Eta horrek areagotu egiten du biktimaren egoera larria, ezin baitu saihestu erasotzaileen presentzia.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasle erasotzaileen % 24 eta DBHko ikasle erasotzaileen % 23,9 ez dira biktimaren ikastaldekoak, baina bai irakasmilari berekoak. Erasotzaileen ehuneko apur bat txikiagoa goragoko irakasmilari batekoak dira.



## 12. Tratu txarrak jasaten dituzten ikasleek familiarengana eta lagunengana jotzen dute maizen. Hori bi hezkuntza-etapetan gertatzen da, baina lehentasun ordena ezberdinarekin, horrela gertatu da orain arte egindako ikerketetan.

Eskolako indarkeriari buruzko beste zenbait ikerketek erakutsi duten bezala, oraingo ikerketaren emaitzek ere adierazten dute biktimek laguntza eske batez ere lagun taldearengana eta familiarengana (gurasoak) jotzen dutela maizen.

2012ko ikerketan, Lehen Hezkuntzan erasotutako sentitzen diren ikasleek arazoa kontatzera familiarengana jotzen dute, eta hein apalago batean (% 7,3 gutxiago), lagunengana. DBHko ikasleen kasuan ehunekoak alderantzizkatu egiten dira, hots, hein handiagoan (% 5,2 gehiago) jotzen dute lagunengana familiarengana baino.

Kontuan hartu beharrekoa da lagunak, hein handi batean, konfiantza osoko pertsonak izan daitezkeela erasotua sentitzen den ikaslearentzat, baina agian ez dira pertsonarik egokienak esku hartzeko ikaskideen arteko tratu txarrak eta jazarpenak eragozteko, kontrolatzeko eta bideratzeko orduan.

Bai Lehen Hezkuntzan bai DBHn, erasotutako sentitzen direnean irakasleengana jotzen duten ikasleen ehunekoa beste pertsona batzuegana jotzen dutenen ehunekoa baino txikiagoa da, erasoaldien ehunekorik handiena irakasleek erantzukizun zuzena duten lekuetan (jolastokia eta ikasgela) gertatzen dela kontuan izanik. Lehen Hezkuntzako ikasleek DBHkoek baino hiru aldiz gehiago jotzen dute irakasleengana.


2012ko ikerketarako galdera-sortan lehenengoz ageri da "*tutorearekin hitz egiten dut*" aukera "*irakaslearekin hitz egiten dut*" aukerarekin batera, eta erantzunak ez dira elkarren baztertzailak; beraz, bi aukerak markatuko balira, irakasleengana jotzen duten ikasleen kopurua handitu egingo litzateke, % 40 Lehen Hezkuntzan eta % 19,9 DBHn. Tutorearengana jotzen duten ikasleen ehunekoa nahiko handiagoa da Lehen Hezkuntzan (% 28,8) DBHn (% 16,5) baino. Datu horien argitan pentsa liteke ikastetxea erakunde gisa aurreko edizioetan baino erantzun abegikorragoa ematen ari dela.

Gainera, erasotutako sentitzen diren ikasleen ehuneko handi samarrak (% 13 inguru Lehen Hezkuntzan eta % 21 DBHn) dio ez duela inorengana jotzen. datu hori oso kezagarria da, ikaskideen arteko jazarpen egoeretan esku hartu ahal izateko, printzipioz ezinbestekoa baita jazarpena jasaten dutenek laguntza eman diezaieketen pertsonengana jotzea. Zer gertatzen den nori kontatu eta norekin hitz egin edukitzea, pertsona helduak hobe, defendatzeko modu bat da, eta horrela kanpotik esku hartzea (ikastetxea, familia) askoz sinpleagoa, arinagoa eta egokiagoa izaten da.


Bukatzeko, honako ondorio hau ateratu daiteke: biktima zenbat eta gazteagoa izan (Lehen Hezkuntzako ikasleak), laguntza eske pertsona heldu batengana, bereziki familiarengana, jotzeko joera gero eta handiagoa da; aitzitik, adina gora joan ahala (DBHko ikasleen kasua), batez ere ikaskideen laguntza bilatzen da, eta hein txikiagoan irakasleen laguntza.

Grafikoetan ikus daitezkeen bezala, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan inorekin hitz egiten ez duten ikasleen ehunekoa apur bat jaitsi da. Hala ere, ehuneko hori DBHn handitu egin da, biktimen % 21ek esaten baitu jasaten ari diren tratu txarrei buruz inorekin ez duela hitz egiten.

**Biktimak tratu txarrak nori adierazten dizkion. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa. Bilakaera.**



**Biktimak tratu txarrak nori kontatzen dizkion.DBH. Bilakaera.**



Laburbilduz, argi dago tratu txarren indizea handitu egin dela bi hezkuntza-etapetan, baina, horrezaz gain, aurreko grafikoek erakusten digute ikastetxeak erakunde bezala, dirudienez, ahalmen handiagoa duela horrelako tratuak jasaten dituzten ikasleei erantzun bat emateko eta beren arazoak jasotzeko. Hala ere, irakasleengana jotzen duten ikasleen ehunekoa oraindik ez da heltzen beste figura batzuegana (ikaskideak edo familia) jotzen duten ikasleen ehunekora.


### 13. Ikasle gehienek esaten dute biktima defendatzen dutela eta egoera geldiarazten saiatzen direla, biktima beren laguna ez den arren.

Interesgarria litzateke taldeak tratu txarretako egoeren aurrean nola erantzuten duen jakitea, nolako erreakzioak eta nolako jarrera dituen. Hau da, ikaskideek erasoaldietan zer egiten duten aztertu da, nola erreakzionatzen duten ikaskide bat zirikatzen dutenean eta ea inoiz talde batean sartu diren ikaskide bati erasotzeko.

Galdera-sortan, ikasleei ikaskide batek tratu txarretako jokaera bat jasan duenean zer egiten duten galdetzen zitzaizenean erantzuteko aukerak elkarren baztertzailak ziren, eta beraz ikasleek beren jarrerara edo jokaerara gehien hurbiltzen zen erantzuna aukeratu behar zuten.

Ondorengo grafikoan Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen erantzunen ehunekoak azaltzen da galdera-sortan eskaintzen zaizkien aukeretako bakoitzean, ikerketaren lau edizioetan zehar izan duten bilakaerarekin batera.

**Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek tratu txarren aurrean duten jarreraren bilakaera**



Lehen Hezkuntzako datuetatik honako hau azpimarratu beharko litzateke:


- Ikasleek tratu txarretako egoeren aurrean gutxiago esku hartzen dutela esaten dute: ikasleek esku hartzeari lotutako erantzunetako ehunekoak batzen badira (laguna izanda edo izan gabe egoera geldiaraztea; pertsona heldu bati deitzea), 2005eko % 85,8tik 2012ko % 72,1era pasa da; hau da, esku hartzeko eginbidean 14 puntuko jaitsiera.
- Biktima laguna ez bada ere, egoera geldiarazteko esku hartzen dutela dioten ikasleen ehunekoa 5 puntu inguru igo da 2012an, pertsona heldu bati deitzen diotela dioten ikasleen ehunekoarekin batera. Zalantzarik gabe tratu txarretako egoeren aurrean jarrera positiboak dira, batez ere lehenengo kasuan, esku hartzea ez baita adiskidetasun-egoeretara mugatzen. Erantzun horien azalpena agian biktima laguna

denean bakarrik esku hartzen dutela dioten ikasleen ehunekoaren jaitsiera nabarmena izan daiteke (20 puntu 2009ko edizioarekiko).

- Tratu txarretako egoeren aurreko jarreretan, bi jarrera ezkorren ehunekoak igo dira: tratu txarretako egoeretan esku hartu beharko luketela uste duten arren, esku hartzen ez dutela dioten ikasleen ehunekoa bikoiztu egin da (ikerketaren aurreko edizioko % 5,9tik 2012ko edizioko % 12,7ra), eta tratu txarretako egoeretan esku hartzen ez dutela eta ez dela beren arazoa dioten ikasleen ehunekoa ere igo da, baina hein txikiagoan (2009ko % 9,3tik 2012ko % 12,6ra).

Jarraian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen erantzunei dagokien grafikoa azaltzen da.

**DBHko ikasleek tratu txarren aurrean duten jarreraren bilakaera**



Aurreko etapan bezala, DBHn ere zenbait datu azpimarratu beharko lirateke:


- Tratu txarretako egoera geldiarazteko esku hartzen dutela edo pertsona heldu bati deitzen diotela dioten ikasleen ehunekoa jaitsi egin da, Lehen Hezkuntzaren kasuan baino hein handiagoan: ikerketaren 2005eko edizioko % 74,5etik 2012ko edizioko % 53,4ra; jarrera positibo horietan 20 puntu baino gehiagoko jaitsiera. Gainera, Lehen hezkuntzan ez bezala, jarrera aktiboek (biktima laguna izan gabe esku hartzea edo pertsona heldu bati deitzea) ez dituzte orekatzen datu horiek.
- Bereziki deigarriak dira oro har negatibotzat edo ez oso positibotzat har litezkeen bi jarrera: tratu txarretako egoeretan ezer ez egiteari dagokion ehunekoa bikoiztu egin da (2009ko edizioko % 8,9tik 2012ko edizioko % 18,5era pasa da) eta tratu txarretako egoeretan esku hartu beharko luketela uste duten arren, esku hartzen ez dutela dioten ikasleen ehunekoa ere bikoiztu da (2009ko edizioko % 12,9tik 2012ko edizioko % 25,8ra pasa da).

Laburbilduz, aurreko datuek erakusten dute, ikasleek ikaskideen arteko tratu txarren aurrean dituzten jarrerei dagokienez, alderdi zehatz batzuek arreta berezia merezi dutela.

#### 14. Biktimen ehunekoak handiagoa da irakasmilaren bat errepikatu duten ikasleen artean. Gauza bera gertatu da ikerketaren edizio guztietan.

Irakasmilarik errepikatu duten ala ez galderari emandako erantzunak aztertu ondoren pentsa liteke badagoela erlazio bat irakasmila errepikatzearen eta ikaskideengandik tratu txarrak jasotzeko zaurgarritasunaren artean. Hori baieztatu ahal izateko kontuan hartu behar da, hala ere, irakasmila bat errepikatu dutela dioten ikasleen ehunekoak oso apala dela.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta DBHko batez besteko ehunekoak begiratzen baditugu, tratu txarrak jasaten dituzten ikasleen ehunekoak irakasmilarik errepikatu ez duten ikasleen artean irakasmila errepikatu duten ikasleen artean baino txikiagoa dela ikusten da.




Ikus daitekeenez, bi multzo horietan biktimen ehunekoak handitu egin da edizio batetik bestera bi hezkuntza-etapetan. Irakasmila errepikatu duten ikasleen kasuan eta errepikatu ez duten ikasleen kasuan, biktimen ehunekoak handiagoa da Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan baino.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan bi biktima-multzo horien arteko alderik handiena 2009an gertatu zen, urte hartan irakasmila bat errepikatu zuten ikasleen artean biktimen ehunekoak 8,8 puntu handiagoa baitzen. Alderik txikiena 2008an gertatu zen ikasle errepikatzaileen artean biktimen ehunekoak 5,6 puntu handiagoa baitzen. 2012ko oraingo edizioan biktimen ehunekoak 6,4 puntu altuagoa da irakasmila bat errepikatu dutela dioten ikasleen artean.

Ondorengo grafikoan biktimen ehunekoaren arteko aldeak azaltzen dira bi hezkuntza-etapetako irakasmila bakoiztean.

**Tratu txarren 2012ko indizea eta irakasmila errepikatzea.** 2012ko edizioan Lehen Hezkuntza 18 jokoera aztertu dira eta DBHn 19 jokoera, aurreko edizioetan (12 jokoera aztertu ziren) baino jokoera gehiago, eta, beraz, aurreko edizioetan aurkeztutako datuak apur bat ezberdinak dira.

**2012. Tratu txarren indizearen bilakaera biktima errepikatzaileen eta ez erreikatzaileen artean**




Ikasle biktimen ehunekorik altuena, errepikatzaileak edo ez errepikatzaileak, Lehen Hezkuntzako 5. mailan gertatzen da, eta irakasmila gora joan ahala jaisten doa. Hala eta guztiz ere, lehen esan den bezala eta argi ikus daitekeenez, DBHko 4. mailan igoera bat gertatzen da. Igoera horren arrazoiak argitu nahian, ikasleen biktimizazioari eragiten dioten zenbait aldagai irakasmila horretan izan dezaketen eragina aztertu da: mutilen ehuneko handiagoa irakasmilan, atzerriko ikasleak pilatzea, errepikatzaileak pilatzea eta familiaren ikasketa-maila. Aldagaiak aztertu ondoren, irakasmila guztietan antzerako datuak mantentzen direla ikus daiteke, eta, beraz, datu horietan ez da aurkitu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailako biktimen kopuruaren igoeraren azalpenik.

**15. Tratu txarretako biktimen ehunekoa handiagoa da ikasle etorkinen artean. Aldagai horren eragina handiagoa da Lehen Hezkuntza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baino, aurreko edizio guztietan gertatu den bezala.**

Ikasle bat etorkintzat hartzen da, bera eta guraso bat (aita edo ama) edo biak atzerrian jaiok baldin badira. Batez besteko ehunekoei begiratzen badiegu, familiaren jatorriak oro har ikasleak erasotzen errazagoak izateari eragiten diola ikusten da, bai Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan bai DBHn, ikerketa guztietan tratu txarren indizea apalagoa baita bertoko ikasleen artean atzerriar jatorriko ikasleen artean baino.

### Biktimen ehunekoaren bilakaera familiaren jatorriaren arabera bi etapetan




Ikus daitekeenez, bertoko ikasleen arteko biktimen ehunekoa eta ikasle etorkinen arteko biktimen ehunekoa konparatzen baditugu, bien arteko alderik handiena Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan gertatzen da ikerketaren 2009ko edizioan, % 7,5 puntu altuagoa ikasle etorkinen artean. Alderik txikiena (% 4) 2008an gertatu zen, 2012ko oraingo edizioiko aldetik hurbil, ikasle etorkinen artean biktimen ehunekoa 6,1 puntu altuagoa izan baita.

DBHn, ehunekoaren arteko alderik handiena ikerketaren 2008ko edizioan gertatu zen, ikasle etorkinen arteko biktimen ehunekoa 7,9 puntu altuagoa izan baitzen. Alderik txikiena 2012ko oraingo edizioan gertatu da, ikasle etorkinen arteko biktimen ehunekoa 3,3 puntu altuagoa izan delarik. 2009ko edizioan aldea % 5,4 puntukoa izan zen.

Ondorengo grafikoan biktimen ehunekoaren arteko aldeak azaltzen dira hezkuntza-etapa bakoitzeko irakasmaitan.

**Tratu txarren 2012ko indizea eta familiaren jatorria.** 2012ko edizioan Lehen Hezkuntzan 18 jokoera aztertu dira eta DBHn 19 joera, aurreko edizioetan (12 jokoera aztertu ziren) baino jokoera gehiago, eta, beraz, aurreko edizioetan aurkeztutako datuak apur bat ezberdinak dira.

### 2012. Tratu txarren indizea ikasleen familiaren jatorriaren arabera




2012ko edizioan biktimen ehunekorik handiena Lehen Hezkuntzako 5. mailan gertatzen dela ikusten da, bai bertoko ikasleen artean baita atzerritar jatorriko ikasleen artean ere. Gainera, bi ikasle talde horiek konparaturik, biktimen ehunekoaren arteko alderik handiena irakasmaita horretan gertatzen da, 9,9 puntu altuagoa ikasle etorkinen artean. DBHn biktimen ehunekoaren arteko alderik handiena I. mailan gertatzen da, 6,9 puntu altuagoa ikasle etorkinen artean.



**16. Ikasleen maila sozio-ekonomikoa eta kulturalak (ISEK) nolabaiteko eragina du Lehen Hezkuntzan ikasleek tratu txarretako biktimak izateko duten aukeran. DBHn ez da berdin gertatzen.**

Ikasleen indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK) finkatzeko zenbait faktore hartzen dira kontuan, besteak beste ikasleak etxean ondasun jakin batzuk dituen ala ez eta gurasoen ikasketa-maila eta lanbidea. Indizean lau maila bereizten dira.



Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan tratu txarrak jasaten dituztela dioten ikasleen ehunekoa apur bat jaisten da ISEK indizearen maila gora joan ahala. ISEK maila baxuko ikasleen % 24,6k jasaten ditu tratu txarrak, baina ISEK maila ertain-altuan eta altuan ikasle biktimen ehunekoa % 20 ingurukoa da.

DBHn ikasleen ISEK mailen arteko aldeak oso txikiak dira, eta, beraz, aldagaiak tratu txarren indizeari ez diola eragiten adieraziko luke.

Bi hezkuntza-etapetan biktimen ehunekorik apalena maila sozio-ekonomiko eta kultural ertain-altuan gertatzen da, argiagoa DBHn Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan baino. Grafikoan ikus daitekeenez, maila ertain-baxuko, ertain-altuko eta altuko ehunekoaren arteko aldeak oso txikiak dira.

### C. IKASTETXEAREN ESKU HARTZEA

Esku hartze prebentiboen helburua tratu txarrak gertatzea saihestea da, horretarako ikaslea biktimaren lekuan jartzeko gai izan dadila lortu behar dute eta bere frustrazioak bideratzen eta arazoak eta konponbide posibleak beste era batean planteatzen lagundu behar diote. Azken batean, helburua ikastetxeko bizikidetzaren hobetzea da. Esku hartzea bi mailatan gauzatzen da:

- a) **Ikastetxe mailan:** bizikidetzaren programetan parte hartzea; irakasleen prestakuntza eta koordinazioa ikasleekiko eta familiekiko bizikidetzari erantzun ahal izateko; muga jakinak finkatzen dituen ikastetxeko barne-araudia garatzea; irakasleen parte hartzea eta inplikazioa ikastetxearen antolamenduan.
- b) **Ikasgela mailan:** tutoretzan bizikidetzaren programak, elkar ezagutzeko programak... lantzea edo ikasleek hezkuntzan parte hartzeko metodologia aktiboa garatzea.


Prebentzio jardueren presentzia apur bat handiagoa da DBHko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan baino. Zuzendaritza taldeen erantzunetatik ondorioztatu daiteke ikastetxe kopuru handi batek urte askotan garatu dituela esku hartzeko programak tratu txarrak saihesteko asmoz. Programa horietan kontuan hartu dira ikastetxeetako bizikidetzari buruzko ikerlanek proposatutako neurriak, Hezkuntza Sailak ekintza plan estrategikoen bidez bultzatzen dituenak.

Helburutzat tratu txarren prebentzioa eta kontzientzia hartzea duten programen oinarriak ikastetxe osoan esku hartzea da, ikasgelako eguneroko jardueran balioak irakastea eta ikasleek gatazkak bideratzeko parte hartzea dira. Programa horiek lehen urratsa dira tratu txarretako egoerak prebenitzeko eta ikasleengan, portaera kontrolatu ahal izan dezaten, epai moralerako gaitasuna garatzeko.

**17. Ikastetxe ia guztiek diote ikaskideen arteko tratu txarrak prebenitzeko jarduerak gauzatzen dituztela. Zuzendaritza taldeek ikerketaren 2012ko edizioan emandako erantzunen arabera, horrela gertatzen da DBHko ikastetxeen % 100ean eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 98,5ean.**


Ondorengo grafikoetan zuzendaritza taldeen esanetan ikastetxeetan hartzen diren neurrien bilakaera azaltzen da. Neurriak ikastetxeen antolamenduari lotuta daude, eta, baita ere, bi hezkuntza-etapetan ikasgela mailan hartzen diren neurriei eta estrategiei.

**Ikastetxe mailako prebentzio ekintzen bilakaera Lehen Hezkuntzan zuzendaritza taldeen esanetan**




Lehen Hezkuntzan ikastetxe mailan tratu txarretako jokoerak saihesteko gauzatzen diren ekintzei dagokienez, azpimarratu beharrekoa da irakasleek ikastetxearen antolamenduan parte hartzeko eta inplikaziorako jarduerak gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa (% 71) nabarmen jaitsi dela ikerketaren aurreko edizioetatik (% 85 inguru). Beste alde batetik, ikastetxeko barne araudia garatzeko jarduerak gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa, irakasleek ezagutu behar dituzten mugak finkatzen dituztenak, nahiko handitu da.

**Ikasgela mailako prebentzio ekintzen bilakaera Lehen Hezkuntzan zuzendaritza taldeen esanetan**



Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ikasgela barruko jarduerari dagokienez, tratu txarrak saihesteko *Ikasleek parte aktiboagoa hartzeko metodologiaren aldeko jarduerak* gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoak igoera nabarmena izan du (% 95,4), edizio guztietako handiena. Hala eta guztiz ere, *Tutoretza lanari buruzko jarduerak* gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoak oso jaitsiera nabarmena izan du (2009ko % 97,6tik oraingo % 66,4ra).

Ikastetxe mailako prebentzio ekintzen bilakaera DBHn zuzendaritza taldeen esanetan




*Bizikidetza programak* gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa 10 puntu igo da DBHn aurreko edizioetatik.

Lehen Hezkuntzan bezala, DBHn ere nabarmen jaitsi da tratu txarrak saihesteko *irakasleen parte hartzea eta inplikazioa ikastetxearen antolamenduan* sustatzeko jarduerak gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa (2009ko % 85etik oraingo % 71ra).

Ikastetxeko *barne araudia* garatzeko jarduerak gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa apur bat igo da, 2005eko edizioko ehunetara heldu eta 2009ko edizioko ehunetara hurbildu delarik.

Ikasgela mailako prebentzio neurrien bilakaera DBHn zuzendaritza taldeen esanetan



DBHn bizikidetza eta elkar ezagutzeko programei buruzko *Tutoretza lanerako jarduerak* gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa orain arte egindako ikerketa guztietako handiena da (% 98,9). *Metodologia aktiboagoaren aldeko jarduerak* gauzatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa egonkor mantendu da.

**18. Ikastetxeetan ikasleen arteko gatazken ondorioz maizen hartzen diren neurriak falta arinengatiko zigorrak dira, gainontzeko neurriek (zigor larriak, egoztea edo salaketak) oso maiztasun txikia dutelarik.**

Arestian aztertutako prebentzio jardueraz gain, zuzendaritza taldeei galdetu zitzaizen zenbat aldiz hartu behar izan dituzten beste era bateko neurriak (zigorra, egoztea, salaketa) eta zein larritasun mailatakoak (arina, larria, oso larria) ikasleen arteko gatazken ondorioz. Neurri horiei neurri erreaktibo esaten zaie, jokaera negatiboak gertatu ondoren hartzen baitira, araudietan finkatutako neurriak hartzearen bidez gatazkek bideratzeko edo jokaera jakinak zigortzeko.

Arlo horretan bi erreferentzia garrantzitsu daude: alde batetik, 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena (EHAA, 2008ko abenduaren 16); beste aldetik, ikastetxe bakoitzak onetsitako antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko barne araudia. Izan ere, aurreko atalean esan den bezala, ikerketa honek hartzen duen aldian igoera nabarmena izan du, ikasleek ezagutu beharreko mugak finkatzeari begira, barne araudia garatzeko jarduerak gauzatu dituzten ikastetxeen ehunekoak.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritza taldeen esanetan, galdera-sortaren aurreko ikasturtean ikastetxeetan gauzatutako jarduerak ondorengo taulan azaltzen dira.

**2012. Ikastetxeen erantzuna jokaera oldarkorren aurrean. Ehunekoak.**  
**Lehen Hezkuntza**

Ikastetxe mailako erantzunak (2010-11 ikasturtea)	Behin ere ez	1-3 aldiz	4-6 aldiz	7-10 aldiz	11-20 aldiz	> 20 aldiz
Falta arinengatiko zigorra	8	18,8	17,9	17,6	14,2	23,5
Falta larriengatiko zigorra	39,2	34,5	15,4	6,3	1,6	3,1
Falta oso larriengatiko zigorra	68,2	30,3	0	1,5	0	0
Aldi baterako egoztea	88,1	9,9	2	0	0	0
Poliziaren aurrean salatzea	100	0	0	0	0	0
Ikastetxez aldatzea	94	6	0	0	0	0

*Erantzun duten ikastetxeen kopurua adierazten du.*

Ikastetxeetan jarri diren zigorrik gehienak falta arinengatikoak dira. Izan ere, aztertutako ikastetxe ia guztietan jarri dira era horretako zigorrak, 20 baino gehiago ikastetxeen % 23,5ean. Falta larri edo oso larriengatiko zigorren kopurua askoz txikiagoa da.

Kasuen % 12an, falta oso larriengatiko zigorra ikaslea ikastetxetik egun batetik seira bitartean egoztea izan da. Ez dago daturik horrelako zigorrak sortu dituzten jokaerak zehaztasunez baloratzeko.

Ikaslea alde aurretik falta larriengatik gutxienez bi aldiz zigortua izan bada, eta zigorrak ez bada baliogabetu, zigorra ikastetxez aldatzera behartzea izan daiteke Dekretuaren 37 a), b), c) eta d) artikulua araberak. Ikastetxeen % 6an zigorra ikastetxez aldatzea izan da.

DBHko ikastetxeei dagokienez, zuzendaritza taldeek emandako datuak ondorengo taulan azaltzen dira.

**2012. Ikastetxeen erantzuna jokaera oldarkorren aurrean. Ehunekoak.  
DBH**

Ikastetxe mailako erantzunak (2010-11 ikasturtea)	Behin ere ez	1-3 aldiz	4-6 aldiz	7-10 aldiz	11-20 aldiz	> 20 aldiz
Falta arinengatiko zigorra	1,5	7,3	10,1	10,6	22,5	47,9
Falta larriengatiko zigorra	2,1	31,3	15,5	22,5	19,7	8,9
Falta oso larriengatiko zigorra	34,2	37,7	15,5	6,4	6,2	0
Aldi baterako egoztea	57,2	30,7	3,3	4,2	4,6	0
Poliziaren aurrean salatzea	91,9	8,1	0	0	0	0
Ikastetxez aldatzea	89,0	11,0	0	0	0	0


*Erantzun duten ikastetxeen kopurua adierazten du.*

Maizen erabiltzen diren neurri erreaktiboa falta arinengatiko zigorrak dira. Izan ere, Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin konparaturik, falta arinengatiko 20 zigor baino gehiago jarri behar izan dituztela dioten ikastetxeen ehuneko bikoiztu egiten da, % 47,9ra heltzen delarik. Beste hainbeste gertatzen da falta larriengatiko zigorrekin. Zuzendaritza taldeen esanetan, ikaslea poliziari salatzea, ikastetxetik aldi baterako egoztea eta antzeko zigor-neurriak oso gutxitan hartzen dira.

**19. Zuzendaritza taldeek gatazketan igoera bat nabaritu dute ikerketaren aurreko edizioarekiko.**

Ondorengo grafikoan zuzendaritza taldeek ikerketaren edizioetan zehar adierazitako gatazken bilakaera azaltzen da. Dirudienez, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeetako zuzendaritza taldeek gatazketan igoera bat nabaritu dute, gutxienez mota bateko tratu txarrak jasan dituzten biktimen ehunekoak 2009ko edizioarekiko izan duen igoeran islatzen dena.

**Ikastetxeetako gatazken bilakaera zuzendaritza taldeen esanetan Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan**



Aurreko analisitik honako ondorio hauek atera daitezke:

- "Apur bat ugaritu dira" eta "asko ugaritu dira" erantzunak batzen baditugu, bi hezkuntza-etapetako zuzendaritza taldeek nabaritzen dute gatazketan igoera bat gertatu dela nabaritu dute 2009. urtetik hona: 5 puntuko igoera Lehen Hezkuntzako zuzendaritza taldeen kasuan (2009ko % 8,4tik oraingo % 13,4ra) eta 2,5 puntuko DBHren kasuan (2009ko % 5etik oraingo % 7,5era).  
Hala ere, ehuneko horien igoera argiturik geratzen da gatazkak "berdin mantendu dira", "apur bat urritu dira" eta "asko urritu dira" erantzun positiboek dagozkien ehuneko altuak batzen direnean, oraingo edizioan ere altuenak baitira. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ehuneko horien batura 2012an % 86,6koa da, eta 2009an % 91,6koa. DBHn ehuneko batura 2012an % 92,5koa da, eta 2009an % 95,1koa.
- Zuzendaritza taldeek gatazken igoera dela eta duten pertzepzioa guztiz koherentea da laburpen exekutibo honetako bigarren ondorioan aipatzen den tratu txarren indizearen igoerarekin. Gainera, pertzepzio hori oso hurbil dago tratu txarren indizeari buruzko datuetatik, hots, 2012an 4 puntuko igoera izan dela Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta 2,8 puntuko igoera DBHn.

## 20. Zuzendaritza taldeen esanetan, ikastetxe ia guztietan, ikasleen arteko gatazka bat gertatzen denean, irakasleek inplikatuekin hitz egiten dute, arazoa eskolan tratatzen da eta familiarekin hitz egiten da.

Ondorio honetan ikastetxeak horrelako egoeren aurrean duen erreakzioa aztertzen da. Zehazki, irakasleek egoera horien aurrean duten erreakzioa deskribatzen da, ikastetxean ikasturte hasieratik proposatzen den esku hartze motarekin batera.

Ondorengo grafikoa Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritza taldeen erantzunak azaltzen dira:

**Ikastetxeetan nola esku hartzen den. Erantzunen ehunekoa**

Esku hartze motak	Inoiz ez	Batzuetan	Sarritan	Beti	Sarritan + beti
Inplikatuekin hitz egiten da	1,6	4,6	23,6	70,2	93,8
Arazoaz ikasgelan hitz egiten da	0	7,1	54,3	38,7	92,9
Arazoaz familiarekin hitz egiten da	0	16,6	36,7	46,7	83,4
Zuzendaritza taldean berehalako neurriak hartzen dira	1	48,4	31,6	19	50,6
Txosten bat idazten da	15,2	49,2	19,6	16	35,6
Arazoa Orientazio sailera bideratzen da	22,6	53	16,3	8	24,3
Kanpoko adituen laguntza eskatzen da	37,1	52,7	9,7	0,5	10,2
Inplikatuak ikasgelatik egozten dira	50,2	48,2	1,6	0	1,6
Eskola Kontseiluan espedientea irekitzea proposatzen da	68,1	31,9	0	0	0
Gertatutakoa ez da kontuan hartzen	87,5	12,5	0	0	0
Poliziera deitzen da	96,8	3,2	0	0	0

Kasu gehienetan (% 93) gatazka sortu duen arazoaz "sarritan" eta "beti" hitz egiten da ikasle inplikatuekin eta eskolan; kasuen % 83,4an familiarekin ere hitz egiten da.

Jarraian erasoaldiek sortutako arazoa konpontzeko hartzen diren neurriek zein esparrutan duten eragina azaltzen da. Jakina, neurriak eta esparruak ez dira baztertzailerak. Gatazka gehienetan ikastetxe osoari eragiten diola esan daiteke, eta ez pertsona edo esparru inplikatu

bakarrik (pertsone inplikatuak, ikasgela eta familia); gatazken konponbidean, berriz, ehunekorik altuenak ikasgelako esparruari eta banakoen esparruari dagozkie.

#### 2012. Esku hartze moten ehunekoak esparru bakoitzean

IKASTETXEA	%	IKASGELA	%	BAKARKA	%
Zuzendaritza taldean berehalako neurriak hartzen dira	50,6	Arazoaz ikasgelan hitz egiten da	92,9	Inplikatuekin hitz egiten da	93,8
Arazoa Orientazio sailera bideratzen da	24,3				
Txosten bat idazten da	35,6			Inplikatuak ikasgelatik egozten dira	1,6
Kanpoko adituen laguntza eskatzen da	10,2				
Eskola Kontseiluan espedientea irekitzea proposatzen da	0			Arazoaz familiarekin hitz egiten da	83,4

Maiztasun handien batuteka: "sarritan" gehi "beti"

Ondorengo grafikoan, zuzendaritza taldeen esanetan, ikasturte hasieratik gatazken ondorioz DBHko irakasleek izandako zenbait jardunbideri dagozkien ehunekoak azaltzen dira.

#### Ikastetxeetan nola esku hartzen den. Erantzunen ehunekoak

Esku hartze motak	Inoiz ez	Batzuetan	Sarritan	Beti	Sarritan + beti
Inplikatuekin hitz egiten da	0	3,6	30,1	66,3	96,4
Arazoaz familiarekin hitz egiten da	0	18,3	24,1	57,5	81,7
Arazoaz ikasgelan hitz egiten da	0	21,5	49,0	29,5	78,5
Zuzendaritza taldean berehalako neurriak hartzen dira	0	27,1	23,8	49,0	72,9
Txosten bat idazten da	2,2	31,3	31,5	35,0	66,4
Arazoa Orientazio sailera bideratzen da	7,3	37,2	34,2	21,3	55,5
Inplikatuak ikasgelatik egozten dira	23,3	65,6	11,1	0	11,1
Kanpoko adituen laguntza eskatzen da	22,7	71,3	6,0	0	6,0
Eskola Kontseiluan espedientea irekitzea proposatzen da	45,8	52,5	0	1,7	1,7
Gertatutakoa ez da kontuan hartzen	82,2	17,8	0	0	0
Poliziara deitzen da	86,7	13,3	0	0	0

DBHko irakasleen estrategiarik erabilienak honako hauek dira: *arazoaz familiarekin hitz egitea, ikasgelan hitz egitea eta inplikatuekin bakarrik hitz egitea*. Zuzendaritza taldeek ere neurriak sarritan hartzen dituzte eta baita arazoari buruzko txostena idatzi ere. Kasuen % 50ean arazoa *Orientazio sailera* bideratzen da. *Kanpoko adituen laguntza* eskatzea edo ikaslea ikasgelatik egozte gutxiagotan gertatzen da.

Ikus daitekeenez, estrategia horiek helburu hezgarria dute (arazoaz ikasgelan, familiarekin edo ikasle inplikatuekin hitz egitea), eta izaera administratiboko beste estrategia batzuekin konbinatzen dira. Ondorengo taulan neurri horiek zein esparrutan duten eragina azaltzen da.



## 2012. Esku hartze moten ehunekoak esparru bakoitzean

IKASTETXEA	%	IKASGELA	%	BAKARKA	%
Zuzendaritza taldean berehalako neurriak hartzen dira	<b>72,9</b>	Arazoaz ikasgelan hitz egiten da	<b>78,5</b>	Inplikatuekin hitz egiten da	<b>96,4</b>
Txosten bat idazten da	<b>66,4</b>			Inplikatuak ikasgelatik egozten dira	<b>11,1</b>
Arazoaz Orientazio sailera bideratzen da	<b>55,5</b>				
Kanpoko adituen laguntza eskatzen da	<b>6,0</b>				
Eskola Kontseiluan espedientea irekitzea proposatzen da	<b>1,7</b>			Arazoaz familiarekin hitz egiten da	<b>81,7</b>

## ERASKINA

## LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA. 2012

## 2012. Tratu txarretako jokaeren maiztasuna biktimen esanetan

Jokaerak	Inoiz ez	Batzuetan	Sarritan	Beti	Sarritan + beti*
Iraintzen naute	64,3	27,5	5,7	2,5	8,2
Izengoiti iraingarriak jartzen dizkirate	70,4	21,6	4,5	3,4	8
Nitaz txarto hitz egiten dute	62,5	29,6	5,1	2,9	7,9
Ez didate kasurik egiten	72,4	22,3	3,8	1,5	5,3
Ez didate parte hartzen uzten	71,8	23,5	2,9	1,8	4,7
Jo egiten naute	77,1	19,2	2,6	1,1	3,7
Gauzak ezkututzen dizkirate	77,9	19,3	1,9	0,9	2,8
Beldurra sartzeko bakarrik egiten didate mehatxu	87,2	10,5	1,7	0,6	2,3
Gauzak lapurtzen dizkirate	88,8	9,6	1	0,6	1,6
Gauzak hausten dizkirate	91,3	7,6	0,8	0,3	1,1
Giza sareetatik kentzen naute	95,5	3,4	0,6	0,5	1,1
Nire kontuan sartzten dira	95,7	3,2	0,7	0,4	1,1
Mehatzuzko mezuak bidaltzen dizkirate	95,4	3,7	0,7	0,2	0,9
Gauzak egitera mehatxuz behartzen naute	96,9	2,5	0,4	0,2	0,6
Nire iruduak Interneten zabalitzen dituzte	97,6	1,8	0,5	0,2	0,6
Grabatu egiten naute grabaketa zabalteko	97,7	1,9	0,2	0,2	0,4
Grabatzen naute nahi ez ditudan gauzak egitera mehatxuz derrigortzeko	98,3	1,3	0,4	0	0,4
Armaz mehatxatzen naute (makila, labana...)	97,1	2,5	0,2	0,1	0,3

\* Maiztasun handien batuteka: "sarritan" gehi "beti"

## LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA. 2012

Tratu txarrak "sarritan" eta "beti" jasaten dituzten ikasleen ehunekoa sexuaren arabera

	Neska	Mutila
Iraintzen naute	7	9,5
Izengoiti iraingarriak jartzen dizkirate	6,9	9,1
Nitaz gaizki hitz egiten dute	9	6,9
Ez didate kasurik egiten	5,4	5,2
Ez didate parte hartzen uzten	4,2	5,2
Gauzak ezkututzen dizkirate	2,3	3,3
Jo egiten naute	2,6	5
Gauzak lapurtzen dizkirate	1,4	1,7
Beldurtzeko bakarrik mehatxatzen naute	1,6	2,9
Gauzak hausten dizkirate	0,6	1,6
Gauzak egitera mehatxuz behartzen naute	0,4	0,8
Armaz mehatxatzen naute (makila, labana...)	0,1	0,6
Mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko	0,4	1,4
Giza sareetatik kentzen naute	0,9	1,4
Nire iruduak Interneten zabalitzen dituzte	0,5	0,7
Grabatu egiten naute grabaketa zabalteko	0,2	0,7
Grabatu egiten naute ni mehatxuz behartzeko	0,1	0,7
Nire kontuan sartzten dira ni arriskuan jartzeko	1,3	0,9

## DERRIGORREZKO BIGAREN HEZKUNTZA. 2012

## 2012. Tratu txarretako jokaeren maiztasuna biktimen esanetan

Jokaerak	Inoiz ez	Batzuetan	Sarritan	Beti	Sarritan + beti*
Izengoiti iraingarriak jartzen dizkirate	74,9	19,2	3,5	2,4	5,9
Nitaz gaizki hitz egiten dute	67,4	26,8	3,5	2,3	5,8
Iraintzen naute	77	17,9	3,3	1,9	5,2
Gauzak ezkututzen dizkirate	79,4	17,9	1,6	1,1	2,7
Gauzak lapurtzen dizkirate	87,8	9,9	1,5	0,8	2,3
Ez didate kasurik egiten	83,9	13,8	1,1	1,2	2,3
Ez didate parte hartzen uzten	89,1	8,7	1,1	1,1	2,2
Jo egiten naute	92,6	5,7	0,9	0,8	1,7
Beldurtzeko bakarrik mehatxatzen naute	93,1	5,1	0,9	0,9	1,7
Gauzak hausten dizkirate	94,0	4,8	0,7	0,5	1,2
Sexua jazarpena egiten didate	96,0	2,9	0,6	0,5	1,1
Mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko	95,5	3,6	0,4	0,6	0,9
Giza sareetatik kentzen naute	95,3	3,9	0,3	0,5	0,8
Nire irudiak Interneten zabaltzen dituzte	97,3	1,9	0,3	0,5	0,8
Nire kontuan sartzen dira arriskuan jartzeko	96,8	2,5	0,3	0,5	0,7
Grabatu egiten naute grabaketa zabaltzeko	98,3	1,1	0,2	0,3	0,6
Grabatu egiten naute mehatxuz behartzeko	98,8	0,7	0,1	0,3	0,5
Gauzak egitera mehatxuz behartzen naute	98,1	1,5	0,2	0,3	0,5
Armaz mehatxatzen naute (makila, labana...)	98,3	1,2	0,1	0,4	0,5

\* Maiztasun handien batura: "sarritan" gehi "beti"

## DERRIGORREZKO BIGAREN HEZKUNTZA. 2012

Tratu txarrak "sarritan" eta "beti" jasaten dituzten ikasleen ehunekoa sexuaren arabera.

	Neka	Mutila
Izengoiti iraingarriak jartzen dizkirate	5,1	6,6
Iraintzen naute	3,9	6,5
Nitaz gaizki hitz egiten dute	6,9	4,7
Gauzak ezkututzen dizkirate	1,8	3,6
Gauzak lapurtzen dizkirate	1,7	2,9
Ez didate parte hartzen uzten	2,4	2,1
Beldurtzeko bakarrik mehatxatzen naute	1,4	2,1
Jo egiten naute	1,4	2,0
Ez didate kasurik egiten	2,7	1,8
Sexu jazarpena egiten didate	0,7	1,4
Gauzak hausten dizkirate	1,1	1,3
Giza sareetatik kentzen naute	0,4	1,2
Nire irudiak Interneten zabaltzen dituzte	0,4	1,2
Nire kontuan sartzen dira ni arriskuan jartzeko	0,4	1,0
Mehatxuzko mezuak bidaltzen dizkirate	0,9	0,9
Armaz mehatxatzen naute (makila, labana...)	0,2	0,9
Grabatu egiten naute grabaketa zabaltzeko	0,3	0,8
Gauzak egitera mehatxuz behartzen naute	0,2	0,7
Grabatu egiten naute mehatxuz behartzeko	0,3	0,6

Ehunekotan letra lodiz idatzia dagoena maiztasun handiagoa adierazten du.